Euskal sena

Auspoa Liburutegia
260

Euskal sena

Auspoa Liburutegia
260

SENDOA ARGITALDARIA
Ugaldetxo auzoa
Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53
Fax 943 49 35 48
www.sendoa.com
editorial@sendoa.com
20180 OLARTZUN (Gipuzkoa)

Latxaga

Euskal sena

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOAARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-05-1
Depósito Legal: NA.: 2.501-1999
Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A, Estella (Navarra)

Itzaurrea

JOSE Maria San Sebastian jauna, euskalzaleen artean *Latxaga* izenordeaz ezagutuagoa dana, esku artean dezun liburu berri onekin datorkigu, irakurle. Ez baita bera geldirik egoteko jaioa, gizon saiatua eta langille purrukatua baizik.

Liburuaren izenburua, *Euskal sena* alegia, egoki aukeratuta dago gaia zer dan adierazteko. Gure erriaren izakeraren berri eman nai luke. Baiña ez azalean geldituta, gure barruko izkutuak argira azaldu nairik baizik. Orixe da, izan ere, norberak ere sarritan ez dakiana, gizonaren portaera eta jokabidearen azken sustrai eta giltza-arriak bere zentzua eta oarkera irixten diran baiño beeragoko mailla eta zokoetan daudenez. Ala ere, gure egintza guzien indar nagusiak ortxe daude.

Zer ote degu, beraz, Latxagaren gaurko lan berri au? Ez dago duda egiterik bere lekua saiakera eta azterketa jeneroen barruan duala. Baiña ortaz aparte liburu oni beste ezaugarririk billatzea, kulturaren idazkietan zein apaletan jarri bear dan erabakitzea alegia, ez derizkiot ain erreza danik. Alde batetik, izan ere, etnolojiaren eta antropolojiaren barrutiko landarea dala esango genduke. Bestetik, berriz, sikolojiatik ere asko du. Zientzia au pertsonari ez ezik, giza-mordo bati ere zuzendu ditekena da eta.

Baiña sarritan ortxe biltzen degu eta ortxe bukatzen da gure arreta guzia: andik edo emendik esku artera etorri zaigun lana zein jenerotan sartu bear degun. Ala ere, gaurko onetan ez dezagun ortan denbora geiegi galdu, aurreragoko esan bearrak badaude eta.

Latxaga jaunaren liburu onekin ez dedilla, bada, orrelakorik gertatu. Galdetuko bagenio, berari orregatik bost ajola zaiola erantzungo liguke, batere dudarik gabe. Nai lukeana zer dan adierazten oso erreza dala uste degu: irakurle bakoitza, liburu ontako orrialdeak irakurri alean, gure izakera eta sena zer diran ikasi eta jabetu nairik pentsatzen eta ausnartzen asi dedilla.

Liburu bat, ona bada batez ere, ez da elburu bat, bide bat baizik. Ez iritxiera, abiera baizik. Ez kuadro bat, leio bat baizik, andik mundu zabalera begiratzeko. Eta benetako irakurle danak ez du liburu orren esanetan eta iritzietan gelditu bear, auek markatzen dioten bidean aurrera segi eta aruntzago iritxi baizik.

Neri, beintzat, liburu au irakurtzen ari nintzala, bein baiño geiagotan gertatu zait ori: konturatu gabe begiak altxa, leiotik kanpora zeruko laiñoetara edo urrutiko mendietara zuzendu, irentsi berriak nere buruan erabiltzen asi eta denbora-puska batean ortan jarraitu.

Latxagaren lan berri au orain arteko liburuetan ongi oiñarrituta dago. Baiña ez du ori iturri bakarra. Beste oparoago bat arkitu du berak. Zein ote? Gure erria. Orrialde auetan orixe ikusten degu argi eta garbi: egilleak konta-ezin aal ordu pasa dituala gure erriarekin artu-emanetan, belarriak adi eta erne, aren ezpaiñetatik gure izakeraren izkuturen bat noiz azalduko zan.

Ori eta bera da eiztariaren portaera. Era askotako eiza egin diteke, izan ere; eta, piztiak botatzeko ez-ezik, beste gauza asko eskuratzeko balio duana da, naiz eta eskopetarik ez erabili.

Au bera beste onela ere adierazi dezakegu: liburu onek lojikatik asko badu ere, intuiziotik beste orrenbeste edo geiago duala. Zera esan nai nuke: orrialde auetan arkituko ditugun egi eta irizbide sakon eta jakingarriak, Latxaga jaunak, liburu edo paper zaarretatik *ikasi* baiño geiago, gure erritar jatorren portaeran *ikusi* egin dituala.

Oso arreta bizi eta luzearen ondorio eta frutua degu, beraz, esku artera etorri zaigun liburu au. Eta bai maitasun sendo, benetako eta egiazkoarena ere. *Benetakoa* esan det, Latxagarena maitasun faltsoa edo itxua ez dala adieraztearren.

Gure erriak, izan ere, mundu guziko beste erri guziak bezelaxe, alderdi onak eta dizdiratsuak baditu noski, baiña bai txarrak eta illunak ere. Sarritan, ordea, auek izkutatu eta besteak neurriz gain altxatzen aalegintzen gera. Orri, bere izen jatorrez esatera, losintxa deitu bearko genieke. Baiña bide ortatik ez diogu geren buruari mesederik egiten; kaltea bai ugari.

M *pekataria* errezatzea, izan ere, ez da zerura zuzen joateko bakarrik ona; baita munduan jator ibiltzeko ere. Baiña Uztapide zanari bein entzun nionez, emen *Zu pekataria* esan oi degu geienetan. Ori bera ere alderdi txar nabarmen samarra degu euskaldunak.

Baiña Latxaga jaunak gure birtuteak goraipatu eta gure akatsak salatu egiten ditu. Ori egiñez, gizon librea agertzen zaigu. Berak ain maitea duan Naparro zaarrean, Obanos erriko garai bateko zaldunak esaera jakingarri au erabiltzen zuten beren portaeraren orratza bezela: *"Pro libertate patria gens*

libera state". Zuen erriaren libertadeagatik, gizon libreak izan zaitezte, alegia.

Baiña esaera orren esanaia ez dagokio politikari bakarrik, sarritan uste degun bezela. Gizonaren beste zeregiñekin ere zerikusi aundia du. Eta kultur-alorrean ere asko balio du. Bere irizbideak izateko eta besteen aurrean agertzeko askatasun osoa zor zaio gizakiari. Ortara irixten ez geran bitartean, ezin esango degu gure erriak kate guziak apurtu dituanik, orixe aitortzeko ere ausardi aundia bearko bada ere.

Ala, Latxagaren liburu au gaillur ortara eramango gaituan bidean pauso bat dala esango nuke. Baiña ibiliz egiten da bidea. Au ez da bere gaiñetik igaro diran ibilkariak utzi duten arrastoa baizik. Ea, bada, orain irikitzen asten geran bidexior ori, egunen batean kamio zabala biurtzen zaigun. "Asiak egiña dirudi" dio esaera zaarrak.

A.Z.

Euskal nortasunaren jakintza

EUSKALERRIAN bizitzeko aurreneko urratsa eman bearra auxe da: "Euskaldunekin bizitzen ikasi". Euskaldunen jokaera zer den jakin gabe, bat galdua dago; ez da oso urruti joango.

Euskaldunak gauza berexi asko dauzka, ez bakarrik izkuntza edo aditza, baita nortasuna guztiz arrigarria.

Berri asko eman ditezke gaur arte izkuntzari buruz, ez naikoak euskal nortasunari dagozkionak. Orixe da gure asmoa: euskalduna nolakoa den ezagutu, baita ikerketaren etekina euskaraz azaldu. Gure arteko urratsak euskaraz eman bearrak ditu-

Ikerketa ori ez dela errexa aitortu bearra dago. Euskalduna ondo ezagutzen zailla da. Nundik dijoan ikusten duzula, ustekabe ederra ematen dizu; orduantxe bertan artzen da ipurdi gañean kankarretako galanta. Berealaxe konturatzen gera maila orretako jakintzan baraurik genbillela.

Euskaldunen artean ere ezberdintasun aundiak arkitzen ditugu. Batzuek gizaseme egokiak izaki, besteak ume biurriak. Batzuen bideak argiak, besteenak illunak.

Berez, itxurazko mintzoak oso gutxi esango digu. Itxuraren atzean dagon beste mintzoari asko begiratu bearko diogu. Bide orretik erne ibilli bearra

dugu. Bigarren mintzo orrek bein eta berriz argitasun berdiñak ematen dizkigula, ortxen nabaritzen dugu euskal nortasunaren enbor mardula. Egiaren oñarriak giza-jokabideen ebaki nagusi berdiñ oiek emango dizkigute.

Euskal nortasunaren sustrai oiek ez dire gaurkoak, aintziña garaikoak baizik. Zer ikusi aundia daukate baserriko giroarekin. Esate baterako, Gipuzkoa'ko giroa edo Euskalerriko edozein probintzietako bizikerak baserriko jokaerarekiR oso lotuak zeuden. Lurraren goraberak asko esan nai zuten len.

Baserriko usaia bazter danetaraiño sartzen zen. Txapelketako bateletan, igeri ez dakiten baserriko semeak ikusi oi ditugu arraunean. Zenbait aldiz ere arkitzen ditugu olategietan lanean baserrietan sortutako gizasemeak. Euskaldunaren nortasuna gizarte askoren lana da, ez dago jaiotza batekin bakarrik lotua. Sustrai zar guzti oiek, gure baserriekin lotuak daude, antxen daukate iturri mardula.

Askotan baserriko giroa begi txarrekin ikusi dugu. Kaletarrak maiz nekazaritza arbuiatzen dute. Gure zorionez baserriaren emaitza osoaz bizi gera. Ba dakigu dena ez dela arrosa ta krabelin. Ba daude ere alderdi oso onak, gureak direnak. Elias Martinez Lezea gizon argiak zerbaitengatik esaten zuen: "'Zuen mendietako baserritarra, zelaiko nekazarien ondoan, beste egokitasun bat dauka, baita jakintza ere". Nortasun mardul oien onarriak eta alderdiak iker bear genituzke, nor geran obeto jakiteko.

Nortasun ori aztertzerakoan, ez gera ona ta txarra bereixten ibilliko. Gauzak diren bezala agertuko ditugu, ta ez nai genituzken eran. Ariari jarraitzeko urratsak gureak izango dire.

Gure xeetasunak ez dute azken itza izan nai. Illuntasun bat urratu nai genuke eta urratsak eman, nolabait jakintzaren argia sortzeko.

Etxea edo etsia atirrena

ORTXEN dauzkagu bi itz, bat bestearekin ondo lotuak datoztenak eta ezin ditugunak bakandu. "Etxea" itzak, "etsia" beste itza oñarri bezala dauka. Aintziñako gizonak, bizi ta iraun nai ba zuen, etsiak egiten asi bear. "Etsi" itz orrek basa-gizonarentzat zer esanai aundia zeukan. Arpetan babesa arkitu bearko zuen eta arkaitzak naiko erosotasuna eskuratuko zion etsiekin bere inguru ori bear bezala zaintzeko.

Gañera ezin dugu aztu, sua zela zeukaten emaitzarik aundiena. Aukera ederrak ematen zizkien suak: beroa, eltzaria egiteko bidea, aragia erretzeko ta etsaien aurka eztena mingarriena. Suarekin gizonak obeto iraun zezakean. Auts tartean gordeko zuten sua.

Benetan arpetan arkituko zuten babesa, baita ere esku ondoan sua eukitzeko bidea; ortarako sarrera itxi bearra zeukaten. Etsiaren ganean eukiko zituzten jarrita begiak. Suak indar aundia ematen zien. Surik gabe beti estu. Suarekin geroa itxaropenez betea zeukaten.

Aintziñako gizonak sua nai ta naiez zaindu bearra, artaldeak ere begiko ninia bezala babestuko zituen, batez ere ernari gertutzen ziren garaian (umeak eukitzeko). Ortarako arkaitz tartean babesak arkitu bear, artegiak eta eskorteak egiteko. Alaxeko pixtiak izango ziren inguruan. Naiko lan babesten

arkume jaio berriak. Leitzeen sarreretan etsiak altxa bear. Ebaki urritzaren makillak, lurrean sakon eta sendo sartu, baita zearka egurraren tartean adarrez estututa josi. Orrela etsia egiña zeukaten. Geroago, aizerik sartzen ez uzteko bustinakin igurtziko zituzten arbastak. Poliki poliki apaintzen asiko ziren etsiak; bustiña bota ta zuritu.

Noizbait, arpeak utzita, larre toki inguruetara, artaldeak bazkatzeko, toki egokienetan edo eskualdeetan altxako zituzten bizitza sendoagoak; egur lodi ta galantak ekarri, abe mardulak egin, ateak sarreretan jarri eta belarra edo ezpalak tellatuetan zabaldu. Bizitza berri auek, naiz ederragoak izan, berez etsiak ziren, bañan ekintza berri orretan, ezberdintasuna nabarmentzeko, "etxea" deituko zioten. Bizitzaren aldaketa ori, ots berriarekin deituko zuten eta orra itz berria jaioa. Bearrak jaiotza eman zion gertakizun berri orreri, ta jarraitutako bidea errex da ulertzen: *itxi-etsi-etxea.*

Zalantzarik gabe, urte, elurte ta gizaldi askotako jokabide onek, bearrezko ekintza berexia izan delako, zerikusi aundia dauka giza-nortasunarekin. Jokabide ori euskal nortasunaren abe nagusia izan dela esango genuke. Bizitokia ixten asi bear orrek eta etsiak altxatzeak emango zion aintziñako gizonari bere nortasunaren egitazko oñarri sendoenak.

Guk ikusi bear, zabalean eta luzean, oñarri ortik zer gertatzen zaion euskal gizasemeari. Bat batean, bi itz, indar aundikoak direnak gaur oraindik, datozkigu burura: euskalduna beti asmatzen dabil eta barrena itxia dauka. Naiko lana ematen du, zer dijoakion barrenean asmatzen.

Ortxen daukagu euskaldunaren eragozpen guztien erro nagusia. Noizbaitetik ikasi zuen ixturak egiten eta barrena ere ixten zijoakion. Asmatzen zer darabilkin buruan, orain qure lana izaki.

Euskalduna beti asmatzen

/ \ SMATU" itzak ba du euskaldunarentzat zeA. A.resanai aundia. Gizonak emandako lenengo urratsetik bere tokia ondo irabazia dauka. Etsiak, nun eta noiz altxa bear zituan beti asmatzen ibilli bear. Eragozpenak aintziñako gizonarentzat eguneroko ogia. Orrexek alegintzen du zertxobait edo zerbait asmatzen. Gañera asmatu bearra, nolanai, nola eta zertan erabilli su ori. Bakarrik gelditu dela askotan, asmatzeko bear ori datorkio ondora laguntza bat bezala. Beti aztarna osasungarrien billa dabil.

Eguneroko agurtza soillenetan, gure baserritarra, nola eman erantzunak asmatzen daukagu. Arazoak esaera nagusietan oñarritu nai ditu. Ala dio adiñeko aitonak: "Egun on, gaur ebi jasa datorkigu eta belar billa joan bear abereak bazkatzeko".

Edozein esaldi obetotzen, txartzen edo borobiltzen dula, itzak nola orraztu asmatzen dabil. Ala zion bein batian Modesto Aranak, Unsalu'ko mutil zarrak: "Itxura ona al dauka aldareak? ...Itxura ona izateko lana egin bear da ta".

Izketan asten delarik, euskaldunak asko neurtzen ditu itzak, baita erantzunaren giroa. Etsiak irikitzen dizkizu edo poliki poliki ixten. Edozein agurra egiten zaizula, ondo asmatua dago aurretik.

Bere burua bere tokian daukala, ondo asmatutako erantzunetan agertuko dizu argi asko. Euskalduna asmatzen iaioa da.

Biziaren oñarria onela ezartzen du: "Berak asmatutakoak bakarrik balio". Orregatik bere asmoarekin atera nai du aurrera. Ortik etika bat sortzen du. Etorkiak abe nagusi orretan ezarriak ikusi nai ditu. Ori bera esan naiko du Azpeitia'ko esaera zarrak: "Geurok asmatu eta geurok irentsi (aguantatu)."

Orain uler dezakegu zergatik euskaldunak maite duen ainbeste musean jolastea. Lagunen artean unetxo bat daukatela lasaitzeko, kartekin asten dire musean. Erri txikietan biltzen direla edo aundietan, orduak joan edo orduak etorri, musean dabilzkigu. Zergatik musean? Asko asmatu bear delako: ze jokoa den karteetan, baita nundik joko dun bere aurrean daukan lagunak. Naiko ondo ez ba du asmatzen, galdua dagola ba daki.

Irabazi nai ba du aleginduko da bear bezala asmatzen. Asmatze orrek zirikatzen du benetan euskalduna.

Orain dator asko esan nai duen eredu polita bat. Errioxa'n euskaldunak euskara, izkuntza bezala, utzi zutenean, erabillitako azken aditza, "Asmatu" izan zen. Ez zuten galdu nai. Gonzalo de Berzeo idazleak, XIFgarren gizaldian, erderaz idazten du, baiñan euskal itz asko erabiltzen ditu: denak ogeitamar dire. Geiena erabillia "asmar, asmando" da: larogei aldiz agertzen zaigu itz ori. Ez zuten utzi nai galtzen. Nunbait maite zuten. Aientzat esanai aundia zeukan.

Euskalduneentzat "asmatu" itza eginkizun guztien sustraia izaki: eguneroko jokabidea biurtu dena, etorkizunaren iturria, baitajokoaren arazoa. Beti asmatze orren itzalean bizi bear.

Mari Txintxarri gaizki ikusia

KALETAR umea genuen Maria "Txintxarri". *Etxeko lau ertzetatik* astintzen zituen auzoko berriak. Orregatik "Txintxarri" izengoitia jarri zioten. Euskaldunak ez du maite itz jarioa.

Alaxe da euskalduna; berez itxia. Ez ditu bakarrik etsiak sortzen: gau ta egun, ortxen dabillela, barrena ixten zaio. Bere nortasuna ondo gordeta euki nai du. Barrena egosten ari zaiola, dauzkan asmoak ez ditu agertzen. Ala zion Unsalu'ko Modesto'k: "Norberak bere burua agertzea ez du nai".

Bein batean, erriko gizonak, jatetxean bazkari on baten ondotik ari ziren izketan: "Aurten sagar alerik ez dugu, au zorigaitza!" Ez zuten esaten ikulluan txekor ederrak zeuzkatela ta millonarioak zirela. Ustekabean, barrena ondo gordeta eukitzeko etsiak altxatzen zebiltzan.

Orrela bere barrena ixten duna zailla da ezagutzen. Buruauste aundiena orixe da: "Barnemuñan egosten, zer daukan jakitea". Itz egin bearrean, ixillik gelditzea ba da obe. Bere nortasun ori gordetzen naiko lan euskaldunentzat.

Barren ori oso aberatsa dula ezin ukatu. Sagarrak ganbaran jasotzen dituen bezala, gordetzen ditu asmoak barrengo erraietan. Aurretik ditunak eta atzetik datozkionak, ari luzean korapillatuak dauzka. Denak gelditzen zaizkio or nunbait sartuak. Go-

ra ta bera ibilliko ditu buru barrenean. Ondo ausnartuak ditunean, astirik egokiena arkitu bear aurrea ez galtzeko.

Euskaldunaren kutxa eder ori indarkeriz irikitzen alegindu ezkero, bat galduko litzake ta laguna minberatua utziko luke. Nortasunaren axala ikuitzeak, berez min ematen dio. Euskaldunaren itxurak ez du gauza aundirik esan nai. Bizkar zabala, giza lodia izan leike, ez uste erdi ustela delarik, barrengo axala errex minberatzen zaio. Bortxatu ezkero itxiko zaizu ta ez duzu geiago nor den jakingo. Betiko galduko duzu.

Axaxaka ibilliz oraindik gutxiago lortuko zenuke. Euskalduna nor den jakiteko, poliki poliki artu bearra. Onena lasai gauzak egitea. Orduan bai, laguna irikitzeko almena izango luke.

Aurrez bere itza ematea kostako zaio euskaldunari. Itzarekin batean nortasuna eskuratzen dizu. Orregatik euskaldunarentzat jokabidearen giltzarria esaera nagusi au da: "Itza itz". Itza atsaren ondorengoa bezala gelditzen zaigu.

Maiz euskaldunaren naia, baita bearra ere jakiten, asmatzen dauzkazu lanak. Asmatze orren zai dago. Itxoiten daude, baten batek asmatuko ote dien daukaten bearra: "Bide berriarekin zuek bai ondo; guri norbaitek egingo digu", esaten zigun amona batek.

Euskaldunaren nortasuna, barrengo errai zabal ta sakon ori duzu: barrena neurririk gabekoa, sarrera oso estua, naiko ondo itxia... Irtera nundik nora dijoan asmatzen, lanak ematen ditu. Bortxatzen asten zerala galduko zera, orma lodiak bakarrik ikusiko dituzu. Lasaitzen ikasi bear atea irikitzeko. Ortarako astirik gabe, ezer gutxi aterako duzu garbirik.

Zerbaiten billa

ZERBAITEN billa ibilliko dek ori" ateraldiarekin Mvmaiv ikusten ditugu euskaldunak. Itxiak direlako eta barrena ondo gordeta daukatelako, malz ustegaitza edo deskonfiantza sortzen zaie. Iru ipuitxo agertuko ditugu argitasuna emateko. Irurak, Donosti'ko auzo batean bilduak daude.

Bein sendagille baten etxe ondoan baserritar bat bizi zen. Sendagilleak garaje bat zeukan eta berebilla egunero atera bear lanera joateko. Gauzak diren bezala egiteko, atzeraka geltokian sartzen zen. Bidea estua zelako jirabiretan gaizki ibilli bear. Gauzak errex egiteko baratzako mutur batek galerazten zion. Jakiña, baratzaren muturra baserritarrarena izaki. Sendagilleak lur mutur ori erostea erabaki zuen. Ortarako baserritarrarekin itz egin bear. Maiz ikusi bañan aldiro ezezkoa erantzuna ematen zion. II zen baserritarra, ta sendagilleak beste gizon orren semearengana jo zuen. Aurrez aurre galdetu zion: "Zergatik ematen zion bere aitak beti ezezkoa?" Erantzuna auxe izan zen: "Zerbaiten billa dabil. Zer nai ote du? esaten zigun". Sendagilleak aldiro agertzen zizkion arrazoiak, bañan ustegaitzak baserritarra ondo eldua zeukan.

Bigarren ipuia. Emakume bat alargun gelditu zen etxe bakar batean. Odol tinka zeukan eta laguntzeagatik sendagilleak esan zion: "Lasaitzeko te-

lefonoa bearko zenuke ta noizbeinka auzokoei deitu". "Obe ez deitzea, ez dire uste onean artzekoak", izan zen erantzuna. Orrekin naiko ongi agertu zuen auzoko giroa.

Irugarren ipuia. Baserritar bateri zordunak dirutxartelak eman zizkion zorrak ordaintzeko. Txartelan, "iru milla pezeta ematen diot" jartzen zuen. Baserritarrak ondo irakurri ondotik zion: "Emen "emango diot" jarri bear luke, nik ez dut dirurik jaso ta...". Orrekin ustegaitza ondo agertzen zuen.

Euskaldun bateri, asmo onarekin laguntza eskeintzen ba diozu, maiz bere buruari galdetzen dio: "Zer nai ote du orrek?"; eta ezezko erantzuna ematen du. Baserrian bizi direlako ote dire orrelakoak? Edo xoilki euskaldunak orrelakoak geralako? Gure nortasunaren aztarnak zarrak dire. Etsiak egiten asi ziren noizbait. Nortasunaren atakak ixten eta irikitzen, naiko lanak ematen dizkigute.

Bakardadean bizitze orrek, zerbait esan nai du. Gizaseme bakartiar norberekoia, lotsakor, bere buruzalea egiten du zalantzarik gabe. Ostiko geiegi artu ditu, baita eragozpenak ezagutzen. Arpegia ekaitzaren aurrean jartzen ba daki.

Arpegia ondo marraztua darama. Korapillo galantak begi aurrean eta inguruan dauzka azal gañean. Barrengo ixturak arpegiko korapilloetan ikusten dire. Zenbat korapillo, orrenbeste ixtura. Euskaldunaren edertasuna korapilloz josita ondo marraztutako arpegi oietan dago. Ikus ondo Zubiaurre ta Arrue margolarien aiton amonen arpegiak: ixturen aztarnak arpegian daramazkite. Ainbesterañoko etsiak zaindu dituztela, ez arritu ustegaltzak izatea. Arpegiko marra sakon oiek naikoa esaten digute.

Etxea zaintzen

ETXEA zaintze orrek ematen dizkio lanak euskal gizonari. Gizaldietan zaintzen iraun du. Goizetik altxata lan bakarra du; etxea begitik ez galtzea.

Etxea ez dute lau ormak bakarrik egiten. Zati askok osatzen dute baserria. Etxe ondoa beste gauza askorekin lotua dago: larreak, basoak eta urak, gutxinaz. Nor datorren, etxeko zirritoetatik begiratu bear. Zirritoak etxeko begiak izaki.

Goizean goiz aldapa gora ta aldapa bera dijoala, aurrez aurre, baita gibeletik, etxe gañean dauzka begiak. Sasi tartetik iñork ikusten ez dula, begiak etxe gañetik ez ditu kentzen. Ixil ixilik, ots aundirik atera gabe, zelatzen dabil. Aur txikiari, gazterik, etxea zaintzen erakutsiko diote: leioak zabalik ez uzten, ateak ixten, noren ondoan dagoen jakiten, gizon arrotzak zer nai dun galdetzen, ezezagunak barrenean artzen ez uzten, sua ondo itzaltzen eta gurasoak ez ba daude solas gutxi egiten,

Etxea zaintze orrek ematen ditu lanak: larre tokiak beti garbiak, urak edateko gai, basoak eskutik utzi gabe eta azokako berriak etxeraño ondo sartzen direla. Ortarako erne bizi bear.

Etxea ondo babesten dakitela, alaxe ere zaintzen dute erriko enparantza. Begiak saietsa ikusteko ere jarriak dauzkate, atze ta aurre.

Batez ere enparantza nola zaindua dagon ikusteko, peri egunean joan bear. Ori ondo ikusten da euria ari ba du. Aterkiak danez gain, buruak ondo estaltzen dituztela, begiak ageri, erne, bizi bizirik.zorrotz, den dena ikusten dutela, Jose "Motela" ta Miguel "Azkarra" baten beia, bestearen txekorra... Ez da enparantza artan txakurrik sartzen, norena den jakin gabe. Bururik ez da ikusten, ondo estaliak dituzte, bañan begiak ageri, lanean, ondo babestuak. Enparantza artan, osto gañean, ez du txori batek adarrik astintzen, begi askok ikusi gabe.

Etxea zaintzen dula, noraño iristen da?

Bere burua zaintzen

Ez bakarrik etxea, bere burua zaintzen ere ikasi du euskaldunak. Bere buru jabetza ondo babesten daki. Beldurra dauka beste norbaitek itzala egingo ote dion.

Ortik datorkio ez dula nai iñork jakitea zer dabilkin buru barruan. Maiz gure baserritarrak, beia gaizki saldu dula eta ez dio ezer esaten bere emazteari; itzik ez. Beste batek ondo gordeta daukana, bere adiskide aundiari ez dio ezer agertzen emaztea dirua jokatzera egunero joaten zaiola.

Baserritarrak, askotan ez ditu agertu nai barruan dauzkan asmoak. Denen aurrean azaltzea ez du maite. Ala esaten zidan Txuñeberriko Martin'ek: "Bere iritzia ta jokabidea azaltzea beldurra dauka". "Tolosa'ko perian tratorik ez duzu ikusten agirian, Torrelavega'koan (Santander), berriz, danen aurrean egiten dute", jarraitzen du.

Gauza oiek zergatik gorde ixilik? Argibideren bat izango da ori egiteko. Giltza bakarra arkitzen dut: zeatz eta meatz, norbera bere burua zaintzen oitua izatea. Dena gorde bear, ori, barruan ondo, ixilik eukitzeko, bizi garai askotan agertzen den gertakizuna da. Ustekabean antxe daukazu eredua aurrean.

Beste batean, norbaiten gorabera aztertzen zebillen Txuñeberri'ko Martin: "Orixe nunbait iritzien billa ibilli da, nun egin ditun galderak ez ditu agertzen".

Askotan giro orretan egiten dire elkarrizketak gure artean; urak agortu ta iturriak ixildu, urratsak aipatu, bidea esatea aztu. Ez esan edo ez agertu bear norberak dakizkinak. Irabazia besteak ez dakiten orretik aterako dula uste. Ari osoa ez askatzeko, burua zaintzen ibilli bear.

Nundik nora dijoan ez agertzeko, galderak ere zuzenean egin bearrean, oker erabiltzen ditu, era bat saietsetik ateratzen zaizkiola. Itza, berez daukan itxura aldetik ateratzen alegintzen da. Galderarekin zer jakin nai dun ere, ez du zuzenean azaltzen.

Ikasi du, baita ondo ikasi ere, erantzunak ematen, ezeren aztarnik agertu gabe. Ara eredu garbia. Batek ala dio: "Zer: gizaseme asko txerripestan?". Erantzuna ez da makala: "Beti bezala".

Guretarren artean burua zaintzea bearrezkoa. Batzuek agertzen digute urruti joan ditekela bide orretik.

Ez dio erakutsi nai zer dabilkin buruan. Asmoak, bear bezala ez agertzeko esaten du maiz "omen" itza: "Emen bizi omen". Orrekin zalantzan uzten ditu gauzak.

Burujabetzaren mugak

GURE baserritarrak, bere burua zaindu bearrean, batzuetan, zoritxarrez galdu egiten du. Beste orrenbeste gertatzen zaio euskaldunari.

Bein, eredu ederra Basaburu'ko (Naparroa) gazte batek eman zidan; bere errian gertatutakoa. Bost etxeko nagusiak beiak saltzera joan omen ziren. Bostek salmenta txarra egin zuten. Beiak saldu ondotik, elkarrekin emengo ta ango berriak astintzen ibilli ziren, baita lagunen artean ardoa edaten illundu arte. Erriko goraberak ondo aztertu zituzten... Gai bat bakarrik naita baztertua euki zuten: beien salmenta... txarra. Etxeratu zirenean besteen beien ordaña nolakoa izan zen jakin gabe gelditu ziren. Batek ixildu, besteak berdin, beste ainbeste beste bostek. Denak jakiteko gogoa. Nola galdetu ez asmatu, ta bakotxa bere aldetik salmenta txar ura ixiltzen berealdiko lanak. Bestena jakin nai bai, bañan berea ixiltxen iraun. Lan orretan nola ondo oituak zeuden, berri garrantsitsuena jakin gabe itzuli ziren etxera. Jokabide orrekin zer lortzen zuten? Galera aundi bat denentzat. Irabazle eroslea gelditu zen. Onek ba zekin beia zenbatean erosi zuten besteak. Jakite orrek baten irabazia eta besteen galera egin zuen. Orrek esan nai du, dena ez dela ixildu bear.

Baserritarrak ixiltzen ba dire, beien bidezko salneurri egokia ezin dute asmatu. Esaten zaiena jaki-

ten dute. Eroslea jaun eta jabe gelditzen da. Baserritarra berriz atzeraka. Bearrezko gauzetan ezin da bat ixildu; elkartu, itz egin, garbi esan gauzak, gogorra agertu... bidezkoa.

Baserritarren jokabide ori, beste askori gertatzen zaigun gauza da. Lantokietan gauzak gaizki dijoaztela ta elkartuta norberak berriak emateko gai ez. Arrantzaleak ikaragarrizko eragozpenak dituztela ta ezin gauzak diren bezala agertu. Alegintzeko gai ez izaki.

Ez al zaigu gauza berdiña gertatzen euskal alderdietan? Ikastoleen etorkizunari buruz ekaitza gogorra datorkigula ta bakotxaren iritziak azaltzeko ezin bildu. Norberak bere iritziak ondo gordeta euki nai. Orregatik esaten dugu burujabetza zaindu bearra dala, bañan barrena itxita ez beti eukita. Jakin bear da ere gauzak garbi agertzen, askoren onerako direnean.

Lur zatiak elkar zaintzeko

GURE mendiak eta lurrak ikusten dituzula, gauza batez ondo oartzen gera; naiko zatituak daudela. Garagar baratzak Berrospe etxe ondoan arkitzen dituzu, lur sail motz batean bizpairu etxeko sendiak lanean...

Larretokiei begiratzen diezula berdin gertatzen zaizu; muño aundi batean lau etxeko belarrak, bata bestearen ondoan, bere garaian sendi ezberdiñak lanean, denak ariketa berdintsuan. Batzuek belarra mozten, beste batzuek zabaltzen, besteak berriz zamatzen. Txapelketa bat irabazteko daukatela dirudi.

Bata bestearen ondoan dabiltzala, denen lanak begien aurrean gelditzen dire. Basoei buruz berdin esan dezakegu; baten altzak beste baten ariztegiaren ondoan, urrengo pagadia beste batena, urrengoa bestena...

Urekin beste ainbeste esan dezakegu: basetxe bakotxak bere iturria etxe gañean. Ori ezin denean, iturri berdiñetik bizpairu etxek artzen dituzte urak, bakotxak bere aska egiten dula. Iturriko urak, nola dijoazten, ondo zainduak daude.

Lur zatiak ondo eratuak dauzkagula Euskalerrian, edozein tokira begiratzen dugula, erri aundi edo txiki, Gaintza, Elduaien edo Gaztelu beste errietara, garbi ikusten dugu. Egitazko argitasunen bat bearko genuke arkitu, nun errotzen den ori dena ja-

kiteko, oñarri sendo batean. Billatu bearko genuke zergatik gertatzen den ori. Gai orretzaz, argitasun baten billa nenbillela, beste asko ni bezala buruauste orrekin kezkaturik zeudela oartu nintzen. Zenbatzuei kezka au bera agertu niela, Oria ibaiko baserritar jakintsu ta gizon guztiz argi batek eman zidan erantzuna: "Gaztelu'n, Lizartza'n eta Orexa'n, elkar zaintzeko dauzkagu lur zatiak". Erantzun borobillagorik ezin eman. "Lur zatiak" edo "elkar zaintzeak" ez dugu jakingo zer den aurrena. Elkar zaintzea oso gurea dela, dakiguna da. Orain, elkar zaintze ori lur zatiekin lotzea, goimaillako erri-jakintza deritzaigu. Ez da berez sortu den gauza bein batean, zorrotz urte luzetan aztertutako gertakizuna baizik. Bide orretik dijoa egia argitzen.

"Besteak zaintzen". Orrek zer esan nai duen ondo zekien gure baserritarrak.

Ortik dakigu, garbi asko, lur puxkak, erne zaintzen elburu jakingarria zeukatela.

Xomorkeria

XOMORKERIA zer den jakiteko, askotan ez da oso urruti joan bearrik Euskalerrian. Gure arteko gaitz bat da, oso zabaldurik dagona.

Burua zaintze orrek dakar oitura txar orren zabalkundea; bide orretik itsu dijoaztenak bereganatzen dute gaitz ori. Beste jokabide batzuekin ere lotzen du euskal nortasuna. Adibidez, berea ta berea bakarrik ontzat artzen dunarekin. Bide orretik, etxe askotan beartzen dituzte aurrak. Beste etxetan nola bizi diren jakin naian daude. Gizaseme aziak ba dakite aurrak jolastuz edo mandatuak eginez nunai sartzen direla. Aurren bidez auzoko berriak jakitea xomorkeriaren asiera da.

Bañan aurrei, berdin, garbi asko esaten zaie: "Ez ibilli zabaltzen auzoan, zer jan dezuten zuen etxean edo nun erosten dun amakjanaria". Ori dena egitea bere burua gaizki zaintzen ikastea da... Gero ez arritu etxeko zirritoetatik edo sasi tartetik besteak zer egiten ari diren jakin nai izatea.

Xomorkeri ori bera ez da bakarrik gure baserrietan agertzen; bizitzako beste mailla guztietan baizik, baita ere euskal idazleen artean ere... Arrituta gelditu nintzen bein ikusitakoarekin. Aurreratuko dut eredu bat. Bi idazle zeuden elkarrizketan. Bat, irripar politarekin ezpañetan, bero bero gauza garran-

tsitsua jakin naian zebillen. Beste onek baita berri jakingarria eman ere. Urrengo egunean berri galanta ori izparringian azaltzen da, bañan berri-emalleak albistea berak sortu izan ba'lu bezala eman zuen, berri-iturriaren izenik aipatu gabe, berriaren emaillea ixilduz. Euskal idazleen artean ori askotan gertatzen den gauza da; berrien oñarriak edo iturriak aipatu gabe gauzak esan, ori oso jakin gañean daudela. Iturrien berriak eman ezkero, beren burujabetza galtzen dutela uste. Bestien buruak aipatzeak, norberarena zapaltzea deritzaie; beldur orrekin bizi dire.

Xomorkeria gure gaitz bat da. Orren aurka osaki bakarra dugu: jator jokatzea. Ez zaigu lan errexa iduritzen. Orrekin ez dugu esan nai mailla berdiñeko erantzunik eman bear zaionik. Gaitzak sendatzeko beti osaki egokienak artzen dire.

Beti Iraun

"IRAUN" itz orrek esanai aundia dauka. Euskal nortasunaren berexitasuna azaltzen du.

Artzaia mendietako ixiltasunean, elurra datorrela, kazkabarrak arpegian jotzen diola, lañozko gabetan, egun bustietan, iñoren laguntzarik gabe, arrats otz gorrietan, beldurrez edo lasai, beti iraun.

Arrantzalea, ur-ontzi estu ta argalaren gañean, arpegia erreta daukala, itxaso arrotuan, ankak dantzan, soña ezin egonean, mamu itsusiz inguratuta, eztulak barrena érretzen diola, aizeak ondo astintzen dula, beti iraun.

Ameriketan, bakardade beldurgarrietan, artza beltzak beso ondoan, suge mingain gaiztoak ankapean, abere errenka luzea aurretik, koiote delako txakur maltzurra atzetik, inguruan berriz larrugorrizko gizon arrotzak oker begiratuekin, amaitzen ez diren asteak lanean argiak eguna luzatu arte, ala guztiz ere euskaldunak beti iraun.

Amona edo euskal emakumea etengabe zerbait egiten, etxea garbitzen, sua zaintzen, bekoa ta goikoa, mandireak zuritzen, aurrak azitzen, baratza atxurtzen, txerriak bazkatzen, arroltzak jasotzen, ala guztiz ere, beti lanean iraun.

Euskaldunak banaka ere artu ditzazkegu. Ale baten eredua naikoa euskaldunen jokabidea nola-

koa den jakiteko. Ortxen daukagu Elbira Zipitria'ren bizitza. Bakarrik, euskaraz aurrei irakasten, inguruan beste gaztetxoak denak erdaraz, gurasoak zalantzan, etsaiak zai, begi beltzak erne, gure euskal andereñoak, berriz, beti iraun.

Zerbait berdintsu gertatu zitzaigun atzerri garaiko Eusko Jaurlaritzarekin; guda galdu, adiskideak bizkarra eman, bakarrik utzi, ezin urrats bat ondo egin, laguntzailleak iges, ala guztiz ere zutik iraun.

"Iraun" delako jokabide orrek ikaragarrizko erroak dauzka euskal nortasunean ezarriak. Nortasun aundiko gizonak eta emakumeak sortu ditu.

"Iraun" orrek zailtasuna ta egin bearra ondo lotzen ditu.

"Iraun" gabe ez dago ziñezko euskal nortasunik.

Euskaldunaren bakardadea

66 T

I RAUN" itz orrek, zenbateraño beartzen dun JL euskaldun nortasuna esaten digu, batez ere bakardadean bizitzen.

Inguruak bultzatzen du; bizitzaren gaiak, bere gain jasotzen. Norberaren gauzak besteak egitea ez du maite. Ez ditu egin nai, bazterretara begiratuz, bere gisa baizik. Orregatik bakarrik egiten aleginduko da. Bakardade orren oiturak ez dio miñik ematen. Orduak joan eta orduak etorri, euskaldun gizasemea bakardadearen gizona dugu. Bakardadean dabilkigu arraitxoa urean bezala. Korapilloak asmatze ori bere gisa asmatu bearra. Etxeko eginkizunak, eta ortik sortzen diren asmatzeko buruaren neurriak, bakardadearen ingurua eskuratzen diote. Ixiltasuna zer dan ondo daki. Xomorkeria ezaguna du. Giro orretan bizi da. Bere buruari gogor egiteko, neurri sendoak ba ditu. Bakardadearen alor ortara daramate jokabide guztiak.

Euskaldun gizonak bakardadearen oñarri galantak dauzka: baserria, lur edo basoz inguratua, borda larre-tokietan ezarria, ur-ontziak uin aserratuen tartean, artzaiak artaldeak bein ere nasten ez dituztela. Jakiña, bakotxa bere aldetik.

Aspaldi ikusi zuen ori Telesforo Aranzadi'k. Euskal nortasunaren bakardadeak banaketarekin bizi-

tzen zerikusi aundia daukala dio: "Bakardadeak edo besteenganako lokarriak bideak ugaritzea edo gutxitzeak asko lagundu dituzte... Berdin gertatzen da euskal nortasunarekin" \

Inguruak eta eguneroko etxeko jokabideak gure gizona egiten dute. Gertakizun ori "Ugarte nortasunaren" izenarekin ezagutuko genuke; jaun eta jabe, etorkizuna bere eskuetan ikusten dula.

Eguraldiari maiz begiratuko dio. Lañopean etsaiak edo adiskideak arkituko ditu; eguzkiarekin ta illargiarekin jaun nagusiak,

Urtearoak bizitzaren aukera emango diote; garaia ereiteko ta garaia uztarako, igaliak biltzeko. Bear ditunean, besteak ondo etorriak.

Izadian ondo oñarrituta, euskaldunaren nortasuna ugartearen kutsuzkoa izaki. Nastu gabe, gauza guztietan norberak usaia artu bear.

1 *La raza vasca, Aranzazi,* Barandiaran, Etcheveny, Zarauz, *Auñamendi* 1959, 9 or.

Bere buruari gogor

BASERRITAKRAK bere buruari gogor egin bear beti. Alaxe erakusten dio eguneroko lanak. Izadi latz orrekin arremanetan dabillela, ekin eta jarrai, bere burua astindu bear. Etxetik ateratzen dela, zernai egiten dula, aldapak gora ta bera dauzka, ta ez nolanaikoak. Ardiak goiko larretan dabiltzala, orduak bear, ttipi-ttapa goraño iristeko. Gañera, bizkar ondoan zerbait darama, pardela; ta gerrikoan aizkora. Azkarra izaten izadiak erakusten dio.

Euria ari dula, lurrak nola dijoazkion, xarra xarra, goitik bera ikusten oitua dago. Iñor laguntzera ez zaio urbiltzen. Ba daki lur guzti aiek, berriz, saskitan artuta, bizkar gañean gora eraman bear ditula.

Batzuentzat, ura ona, batez ere barazkiak azitzeko; bestientzat kaltegarri, luiziak sortzen direlako. Lurren aldatze orrek buruak ondo astintzen ditu. Neke aundiak ikusita, negar egiteko astirik ez dauka. Ekin eta lanaren bitartez okerrak zuzentzen ditu. Buru-beso, lanean atera nai ba du, garbi jo bear.

Gogorra ez dena, bere buruari lañeza ematea dela iruditzen zaio. Ezbearrak eta lan gogorrak bete betean eta sututa artu ezkero, ba daki euskaldunak berealaxe erre ta kixkalduta geldituko litzakela. Orregatik, aztu gabe ta lasai artzen ditu lanak.

tzeraño eusten dakina euskalduna da. Lanari eusten alegintzen dena atsegin zaio. Izan leike dirua dunari parra egitea; parra gutxi berriz lanari eusten dakionari. Lanari eutsi nai dionak, aurrera jotzen du. Ez daki atzera egiten; asi ta bukatu. AaJ dela amaitu gabe ez utzi. Zenbat aldiz ikusi dugu. belarretan ari dena, ebi erauntsia asi, buru bizkar gañean zerbait jarri eta eratutako belarrak berriz pillatu lasterka, azkar azkar. Edo neguan, elurra ari dula ta, etxe barrenean beste lanetan etengabe asi: makillak antolatzen, urrengo babarrun saillentzat zutik zuzen eukitzearren... Betiko aitzakia, aurrera begiratu, eusteko daukanari. Orregatik dio esaera zarrak: "Jan nai ba duzu, lana egin".

Gauzak amaitzen ondo jakiteak, asko esan nai du euskaldunentzat. Bere gain zerbait artu ezkero, ondo egiña utzi arte, lasaitasunik ez. Ondo egite orrek lasaitzen ditu biotzak, eta osatzen gure gizonen nortasunak. Euskaldunak ez dute maite, berez izen aundiko gizasemeak; bere gain, berriz, gogotik lana artzen dutenak, bai. Azkeneko auei eskeíntzen diete begiramen osoa ta ondo ikusia.

Euskaldunak, lanak ondo egin arte ez ditu agirian azaltzen. Ez dizu beinere esango: "Tratore bat erosiko dut". Garaia etortzen zaionean, auxe esango du: "Tratore bat erosi dut". Euskaldunarentzat, egindako lanak agintzen du.

Burnia lurraren biotzeraño

EUSKALDUNA lanean ari dela, sendo jokatzen daki ta indarraren mugak ezagutu naiko ditu.

Euskaldunentzat zer den lanaren esanaia ikusteko. bi eredu naikoak izango dire.

Itzaia, bi idi bikotearekin lurra iraultzen dabillela ikusi dunak, euskaldunaren kemenari buruz asko daki. Lau idi, batean uztartuak dabiltzala, geienetan bi gizonen bearra dute. Bat itzaia, idien aurretik dijoana akullua eskuetan daukala; bestea , berriz, goldearen atzetik, akullua eskutik utzi gabe ta zai, idiak azpilo masalletan zirikatzeko.

Itzaia, aurretik, abere galanta aiei neurriak artzen dijoa; bidea irikitzen.

Gizonaren trebetasuna abere galanta aien aurrean neurtzen da: begiak erne adarrekin, buru-argiarekin uztartu bear, gizona bezin aundiak diren idiekin. Urratsak batean eman arazi, zuzen eutsi dezaioten lerroari. Itzaia, idiak jarraitzen diotela, gizon egiten da. Itzaiaren nortasuna idi aiek neurtzen dute.

Atzetik dijoan lur iraultzalleak, elburu bat dauka; idien indarrarekin, lurraren barrenean, lurraren biotzeraño burni zorrotza sartu ta iraultzen eutsi, lerrotan barrengo izerdia ondo eratua ikusten dela.

Burni zorrotz ura lurraren biotzeraño sartzen dela, langillearen nortasuna agertzen digu. Euskalduna lanean ez da azalean gelditzen, sakonjokatzen da. osorik bere elburura dijoa. Orixe esaten digute itzaiak aurrean eta lur iraultzalleak goldearen atzetik.

Beste eredua, berez mintzo dena, laia da. Idiak sartu ezin diren tokietan, eskuz egin bear lana, askotan sendi osoaren eginkizuna. Bi burnizko tresnak artu esku bakotxean, gizon emakume langille denakjarri errenkan. lerro estua bear, laia zuzen artu, altxa besoak goraño, eta indar osoarekin jo lurra, burnia barreneraño sartu arte. Indar galantak egiñak, atsa ere sartzen dutela lurraren biotzeraño, laiakin batean. Altxa gora ta bera berriz besoak, laiak zuzen burni zorrotzarekin, lurra izerditan utzi arte. Besoak ezin zutena egin, ankekin amaitzen zen lana. Ortzak lurraren biotzeraño sartuak zeuzkala laiak, ankekin indarra egin bear lurra obeto iraultzeko. Orrela, orduakjoan eta orduak etorri lanean.

Gure idiak eta laiak, neurri guztietako traktoreak baztertu dituzte. Guk berriz ezin ditugu aztu, gure erriaren nortasunaz mintzo zaizkigu ta...

Bere gisa

LANA egin bai, bañan bakotxak bere gisa. Ziur nago bi euskaldun bata bestearen ondoan artuta, ez dutela lana berdin egiten. Belarrak direla ta, etxe batean ezkerretik asten dire ebakitzen, bestean eskubitik; emen goitik, an beitik. Babarrunak erein bear dituztela ta, etxe ortakoak bustialdiari itxoiten, aldamenekoak legor dela; batzuek goizean, besteak atsaldean; goikoak oso azkar, bekoak poliki. Gauza guztirako neurriak eta aitzakiak; eguzkia dela, aizeak agintzen dula, oitura zarrak ala ziola, aitonak beti esaten zula...

Zoaz baserriak ikustera. Ez daude bi berdiñak; bat zabalagoa, bestea txikiagoa; emen egurrezko besatokia, an leioak bakarrik; emen ezker sarrera gora igotzeko landatik; an eskubitik, sukaldera zuzenean barrendik sartzen zerala.

Zailla benetan bi baserri berdiñak arkitzea. Etxe danetan eukiko dituzu sukaldea. gelak, sarrerak eta abar; zailla neurri berdiñak arkitzea. Etxe sendoak bai; etxegaiak, berriz, oso ezberdiñak: emen egurrak ageri, an arri galantak; bestean buztin errea, karea ugari beste aretan. Zailla bi basetxe berdiñak arkitzea.

Zoaz sukaldeak ikustera. Emen zabala., an sapaia goien, emen berago; batzuetan lau ate, bestean bi, ba daude batekoak ere.

Sukaldaritzako lanetan sartzen zerala, ezberdintasuna nabari. Ar zazu gai bat, arraultz opilla bakalluarekin: etxe batean piperra nastuko diote, bestean tipula geiago, bestean berriz baratxuria; toki batzuetan bakallua su gañean erreko dute, edo esnearekin jarriko dizute.

Zoaz ikustera nola egiten dituzten lukainkak. Emen giarra geiago nastuta, an beste aragi-puxkak sartzen dizkiotela, beste askok urdaia naikoa nastuaz. Askotan entzungo dugu: "Gure lukainkak onak zeuden". Esaldi orren itz bakarrak naikoa esan nai du. "Gure lukainkak" esatearekin esku berexia, ez dena besteen antzekoa, adierazten digu. Gañera egia da. Lukainka kontuetan, ezberdintasun aundia dago etxe batetik bestera.

"Bere gisa egite ori" ez da bakarrik lanetan ageri; beste edozein gaietan esango nuke. Ikus alki batean gure aitonak eserita, enparantzetan, argazkietan edo margotan. Ez daude bi berdin eserita. Makilla ez dute toki berdiñetik eusten, bakotxak bere gisa baizik. Berez ustekabean ateratzen zaio. Orregatik dauzkagu gure errietan ain nortasun aundiko gizon eta emakumeak. Lana egin bai, bañan norberak bere gisa.

Gorra - gogorra - eosgorra

IRU itz auek elkarren ondoan jartzea merezi dute; bata bestearekin lotuak daude, euskal nortasunarekin zer ikusia daukate. Gure artean errexa billatzen irukote indartsu ori: gorra, gogorra, eosgorra.

Euskaldunak den denak entzuten ditu, bañan gorraren itxura egin bear. Ozenki oiu egiten diozu ta entzungo ez ba'lu bezala gelditzen da. Milla bider esanta ere, era bat utsean joango dire zure itzak. Jaramonik ere ez dizu egingo. Gorraren antza egiñez, bizkarra ondo erakusten daki. Pernando Amezketarra iaioa da gai onetan. Bere barrengo deiari erantzuten dio, ez besterenari.

Eredu asko dauzkagu gaitz au agertzeko. Emakume bat ezagutu nuen, garbia, langillea; eta etxea garbitzen, gabaz egin bear, illunpetan. Mila bider, lan ori ez zala bidezkoa esan, baita ere egunarekin batean egin bear zirela garbiketak. Emakume orrek naiz denak entzun, gorra izaki.

Politikako goraberetan asko gertatzen zaiguna da. Norberak bere aldeko deia entzun, eta ori bakarrik. Txuriarekin ba naiz, alderdi ortara belarria jarria euki, ta besten otsa ez jakin. Gorren antzera bizi.

Elizgizon euskalduna, goi maillekoa, ezagutu nuen. Maitasun itza zeukan aoan, eta ez zuen beste iñor entzuten; berea eta beti berea.

Mailla askotako gaitz au daukagu Euskalerrian. Gañera ez du adiñik barkatzen. Ustekabean ortxen arkitzen dugu gure aurrean.

Gorra, bere orretan oitutzen dijoala, gogorra biurtzen da. Gai batzuek ezin aipatu bere aurrean; ezer orrelakorik ez asi astintzen. Gogokoa ez zaionean ezezkoa emango dizu,

Bein gertatutakoa neri, beste askotan bezala, ezagutzen ez ba zaituzte, gogor artzen alegintzen dire. Gazte baten galdezka nenbillen, etxera joan, atea jo ta gizonezko bat agertu zen. Berealaxe galdetu nion: "Etxean al dago Iñaki Aritza?".

Ezezkoa eman zidan. Berriz esan nion: "Zu al zera?". Ixíllaldi luze baten ondotik, "Bai" erantzun zidan. Noren bidez ninjoan bere billa jakin naian zegoen. Jakin zuanean, ondo lasaitu zen. Orrelako gertakizuna ez da bakarra. Erri orretan bertan, beste ainbeste bizpairu aldiz egin zidaten. Lenengo, ezezkoa eman bear. Bai; ezezkoa sugurraren aurretik bidali bear.

Gaitz ori ez da or gelditzen, indartzen dijoa gizasemeen antzera; era bat eosgorra biurtzen zaigu bere gogorkeri orretan; egitan, itxutzen da. Bere girotik ezin atera, ez aurrera, ez atzera. Eosgorra gizon itxia da benetan. Besteari bere besoa ezin eman. Bere taldekoa ez denari jaramonik ez dio egiten, eta onen asmoak ez ditu ontzat artzen.

Zer egin eosgorraren gogoan sartzeko? Bide bat arkitzen dugu ori egiteko: zeren bearrean dagon asmatu ta ortik arremanetan asi. Gero ondo datorkio barrena lasaitzea. Lasaitu, itz eder ori da egitazko osakia.

Asko ere lagunduko liguke jakiteak, euskaldun denok dauzkagula eosgorren bolarak, aizegoekin gure ero aldiak ditugun bezalaxe.

Gorra, gogorra ta eosgorrak izatea gure erriaren emaitza da. Ori dena jakiteak asko laguntzen du, baita lasaitzen gaitu.

Etxe - ondoa indartzen

EUSKALDUNEN gogo osoa auxe da: etxea ondo sendotzea. Etxeko seme-alabak, naiz bertan gelditu, naiz atzerrian bizi, sortokia egokitzen aleginduko dire beti.

Etxe bateri eusteko, denetik bear da; Iaguntza guztiak ondo etorriak. Bearrak alderdi askotakoak izaki: zutoiak esiak eusteko, zugaitzak itzala emateko, baratzean landareak ontzen, osakiak sendatzeko, labea ogia berotzeko, urtokiak lioa beratzeko. Orrelako zerrenda etengabe luza dezakegu. Etxeko bearrak aundiak dire; zerbaiten gosea agertzen dute. Etxean esku utsik ez urbildu beinere.

Senideak, etxetik naiz urruti izan, sortokia gogoan daukate. Bein izeba ikustera Ugainborda baserrira, Bera'n, joan nintzen. Ura zen nere aitonamonen etxea. Bazkaldu ondotik, izeba Urbana'k kutxa zar bat iriki zuen, baita bilduma batetik aintziñako argazkiak atera. Ez ziren gaurkoak; ba zituzten larogei, irurogei, edo berrogeitamaren bat urte. Arjentina, Kalifornia edo itsasotik berriak zekarzkiten, sendiaren gora-berak. Argazki aiek, asmo onez eta eskerrez beteak zeuden. Bein, osaba Jesus, Inglaterra'tik eize-txakurrarekin agertu zen sortetxean, baserrian ollagorrentzat bear zela ta. Zorionez, esku asko biltzen dire baserria laguntzeko.

Etxeondoa indartze orrek beste jokabide batzuk agertzen ditu. Egia esan, etxerako oberena zernaikin agertzea, naiz autsa edo ezpalekin etorri. Laguntza denak onak, ondo etorriak. Naiz zoko bateko baserritik sortu, beti norberaren kabi berexia izaki.

Etxeko irabaziari begira izateak nortasunarekin zerikusi aundia dauka. Etxearen maitasunak ba ditu bere alderdi ederrak eta baita ere naiko makalak. Etxea ta nortasunarekin dauden lokarri oiei buruz galdera arrigarri batzuk, soil soilki, sortzen zaizkigu ustegabean. Aurreratu ditzagun gutxinaz bi.

Adibidez, etxea ta nortasunarekin sortzen diren lokarri orretik argia datorkigu gure jokabide latzak nolakoak diren ikusteko. Ikus eredu arrigarria: nundik datorkio euskaldunari ain gogor egiten zaiola eskerrak ematea?

Bigarren galdera: nundik sortzen zaio geienetan euskaldunari irabaziaren gosea? Lagun urkoaren lana ez zaio ainbeste ajola; norberaren irabazia denen aurretik, berriz. Nun dago jokabide orren giltzarria? Jokabide nagusi oien zutabeak ondo jakin bearrak ditugu.

Dena den bezala ikusteko, begiak erne, irikiak euki bear. Ikusitako gertakizunak erantzun baten galdezka daude. Erantzun oietan ikusiko dugu nolakoa den euskal nortasuna. Egia zer dan jakiteko bazterrak ondo ikusi bear. Garrantzi aundiko gizajokabideak sortzen zaizkigu, bat batean, ustekabean, korapillatuak, etxearen zaletasunarekin lotuak daudenak.

Zer dago "eman" itzaren itzalean? Ez daude beti asmo garbiak. Zer esan nai ote du gau-lanak? Galdera orretan erri baten nortasuna dago erantsia. Ez da axaleko jokabidea, egi galanta baizik. Zergatik, euskaldunen artean gelditzen dire asko ixilik? Ziurtasun osoan, utsean ez dutelako esan nai gauzak. Danetik irabazia atera nai dutelako.

Gertakizun arrigarriak ba ditugu euskal gizonemakumeen artean, gure lanak zer esan nai dun jakitearekin. Ortxen dago gure lanaren ardatza.

Zerbait ekarri bear etxerako

LEGASA'KO Migel ezagutu nuen, zorionez; gizona ziñezkoa ta zuurra, benetan burutsua. Beti bakarrik zebillen, izadian bilduta. makilla eskuan. Bidean arkitu ezkero, arpegia aldatzen zitzaion. Baita irriparra agertzen. Itzak neurtuak zeuzkan, argitasunez beteak. Maiz, menditik zetorrela topatzen nuen. Beti besazpian pardeltxo bat zekarren. Nolako garaia, alako gaiak. Batzuetan gaztañak, bestetan intxaurrak, aal zuenean xixa oriak. Urritz makillak baratzean landareak zutik jartzeko ere

runtz zetozen. Geientsuenak edantokietan berandu eginta, larri ibiltzen ziren ibai-ertzetan. Ba zeuden ere, diru jokatzetik zetoztenak, irabazleak sakelak beterik, ur aundietan gaizki ibiltzen zirenak. Galtzen zituzten gauzak biltzeko, laguntzalleak zai zeuden". Etxerako dena ona izaki.

Neurri berdiñean, artu bearko ote beste eredu tsusi bat? Ikus baserritarren eredua esnearekin. *Gurelesa* delako elkarteak biltzen zituen Gipuzkoa'ko baserrietako esneak. Zerbait arrigarri arkitu zuten elkarte ortako zuzendariak; esnearen ordez ur asko jasotzen zutela. 1969'garren urtean, 12.000 litro ur eraman zituzten baserritarrak *Gurelesa'ra.* Baita ere arazo aulen aurka erabaki gogorrak artu. Ala guztiz ere, urrengo urtean, 1970'garrenean, oraindik bi milla litro ur eraman zituzten *Gurelesa'*ra, esnearen ordez.

Bigarren aldiz urarekin atxeman zuten batek, ez zuen euki asmo txarra; emaztea bi ollasko artuta laboratoriora joan zen, ken zezaioten ango txosten beltza, kalteak gutxitzeko asmotan.

Aurrena etxeko irabazia

GURE errian, zertan oñarritu gertakizun arrigarri batzuek? Burura datorkigun galdera da. Ikus eta aztertu eredu gogor batzuk, benetan zaillak irensten.

Euskalerriko errixka bat mendian datza txintxilik, eta elizatxoak dorre luzea dauka, ta erdi erdian ordukari galanta ikusi dezakegu. Ezkillarekin batean zebillen lanean. Orduak jotzean, urrutitik entzuten zen. Ordukari ori ezaguna zuten; ta, naiz aspaldikoa izan, nork egin zuen denak zekiten.

rreko ordukaria zuzendu zuen errementariak. Baita ere doai egin lana. Ala nai zuten gure baserritarrak; ori lortu arte ez ziren geldirik egon.

Oraindik ez zaigu amaitu ipuia. Orain urrengo zatia dator. Alegia, gizon baten bearrean zeuden ordukariari astiro indarra emateko, lanean luzaro iraun zezan. Erriko semea bear zutela lan ori egiteko ta... billatu zuten bat, eta onek lansaria eskatu zuen. Orduan auxe ikusi bear: arrotzak lana doai egin bear eta bertako semeak patrika bete nai...

Orain dator beste eredu bat zaillagoa ulertzen. Urte batzuk direla, kaletar gazteak zetozen euskera ikastera euskal erri batera. Janariaren truke lana egiten zuten baserrietan. Orrelako laguntzalleekin zoriontsu zeuden gure baserritarrak. Erriko gazteak, laguntzalleekin batean bazkari bat egitea asmatu zuten. Aukera ikusi ta egin.

Izendatzen dute eguna bazkari eder bat egiteko, mai baten inguruan biltzen dire, baita etengabe abesten. Giroa ezin obea lortzen dute. Ordaintzeko garaia dator Erriko semeak erabaki bat artzen du

Orrelako gertakizunetan bi elburu eutsi nai izan ditu; bat, etxearen irabazia danez gain; eta bestea, gaizki gelditu nai ez. Ori bai: al dela ongi gelditu. Orrexek bultzatu du berak ematen dunak bakarrik asko balio dula uste izatea. Orrekin agertzen digu lana ordaintzen ez dakila. Etxearen irabazia aurrena izaki.

td

\ L

\m»%



Esker gutxi eman

EUSKALDUNA esker gutxiko gizona dela, garbi asko ikusten dugun gauza da. Ortarako, naikoa begiak irikiak eukitzea. Larrain orretan ez euki gogoan baserritarrak bakarrik. Eredu batzuk agertzen ditugula, idazleen artean gertatutakoa esatea atsegin zait.

Dakigun bezala, idazlea ez da nornai, gizon jakiña baizik. Askotan euskaldun idazleen artean auxe ikusten dugu: berriak ematerakoan, emalleen izenik ez dute agertzen. Atzerritarren artean, berriz, ga-

ertzea geiegi dela dirudi. Eskerrak emanez bere urua gutxiezten dula uste.

Ori ez da gaurko kontua. Amaseigarren gizalan, Ameriketan gertatutakoa ikus; euskaldun bak argitaratu zuen lenengo liburua, Juan de umarraga gizon ospetsuak ain zuzen. Kristau-ikasdea argitaratu zuen, 1544'garren urtean. Liburu ri irakasleentzat egiña zegoen, oso atsegiña ta beetan mamitsua. Lau gizaldi geroago asmo argiak orenak ziren arkitu zuten: itzez itz Erasmo jakinuarenak. Berez liburu ori Erasmo'k egindako laaren itzulpena zen. Juan de Zumarraga'k ez digu rrelakorik esaten. Dena berak egiña izango ba'litz ezala agertzen digu. Egitazko egillearen izenik ez u ematen. Juan de Zumarraga ez da nornai; exiko iriaren lenengo gotzaia baizik.

Eskerrak ez emate orrek ba ditu bere erro senoak. Bein euskaldun abertzale adiskide miña launtzen nuen erbesteko Euskal Jaurlaritzaren aginari bat ikustera. Berriak jakin nairik irrikatzen

Etxea zorretan ez utzi

EUSKALDUNEKIN arremanetan zaudela, eskerrak ematea zenbat kostatzen zaion ikusiko duzu. Garbi asko auxe ikasiko dugu: eskerrak ematea zailla egiten zaiola. Ta ala jokatzen da, etxearen izena zorretan ez uztearren. Eskerrak ixiltze orrek esanai aundia dauka.

Zenbat esaldi biurriak, orpotik asita ikertzen dituzula, oñarri bakarra daukate: esker motzenak eman.

A d bt ti ii Eldi k k

etxea zorretan ez uztea. Danen aurretik, etxearen izen ona zaintzen alegintzen dabil.

Euskaldunen jokabide askoren ardatza auxe da: etxea gaizki ez utzi.

Bein, apaiz gazte bat euskal aldizkari baten idaztegira joan zen. Apaiz gazte ori Suezia'tik zetorren. Ango nekazarien giroa ikustera joan zen, batez ere kooperatibak eta eziketa. Denbora gutxin asko ikusi zuen. Irarkolako zuzendariak lekaimeak ziren, denak euskal idazleak. Gogoz entzuten ari zen eta norbait era bat arpegi onarekin begiratzen izango balitz bezala jartzen zuen. Adi adi zeuden. Beste edozein asmo izango ba'litz bezala artzen dute, itxuraz entzundakoak.

Bañan ao zabalik entzuten zeuden. Bakarrik oar bat egin bearra: ez diote ezertxore galdetzen, ez itz erdi bat. Orrela eskerrik ematen lanik ez. Zorretan ez zuten gelditu nai. Ortarako biderik egokiena ixilik egotea.

Argi garbia emateko, ara beste eredu bat. Bein,

Zorrik ez utzi al dala

ZORRIK ez utzi al dala" dion asmo berexi onek «/ba du bere indarra euskaldunen artean. Zorrak uztea gaizki ikusia dago. Iru eredu bide orretik dijoazenak eta argitasun aundia ematen digutenak ba ditugu.

Lenengo eredua gizon azkar batena da. Azkarra benetan; ori ondo azpimarrazten dugu. Gaztea zelarik, neurri aundiko lantegiak sortu zituen. Indarrak berdingabeak nabaritzen zitzaizkion. Gogotik zebi-

der dun gizona aurrera ateratzea. Ondasunak, tsasoari ura bezala, ugaritu zaizkio.

Beste eredu bat oso bestelakoa. Gizon maltzur bat dugu ustegaitza. Oitura dauka oso barrenean artua. Besteak emandakoa gutxiesten. Arpegi gaanta dauka. Bazkaria ematen ba diozu, akatsak bilatuko dizkizu. Petralkeriak asmatuko ditu "babarun obeak jan ditut" edo "merkeak daude orain", sanez.

Galdetu dezakegu: "Zergatik egiten du ori?". Oso rrexa da ulertzen: zorren aztarnik ez du utzi nai. Berari besteak emandakoak gutxiesten ditu. Ez arriu: aspergabe bere lanak eta opariak goratuko ditu.

Azken eredua: ondo ezagutu nuen euskaldun bat, eskeintzen zitzaizkion opariak ez zituena arzen. Ala zion beti: "Bein ere ordainduko ez ditudan opariak ez ditut artzen". Beldur bat zeukan ondo artua: "zorretan ez zuen gelditu nai".

Ementxe aurreratu ditugu iru eredu ezberdiñak, bañan giarra berdintsua daukatenak. Mezuaren

Gure gaitza: maltzurkeria

IXILIK egotea" esaldiak ondo marrazten du euskaldunaren barrena. Ortarako egoten ikasi bear. Giro orrek ezitzen gaitu; ixiltzen eta entzuten oitutzen gera. Bide orretik dator sortzen dan gaitza; maltzurkeria. Dena entzun etajakĺn, ondo gorde ta berea iñori ez esan. Maltzur giroa, nunai nabari Euskalerrian. Atertu gabe galdetu, denak jakin eta berea ixildu; orixe dugu Euskalerriko jolasa. Batzuen jokabidea: danetik irabazia atera. Ez dago egunik maltzurkeriarik ikusi gabe

k len bezin itsuak gelditzen dire. Giro bat aitortzen u orrek: kopeta gora, begiak argi ta itzak ondo ko- pillatuak. Orrelakoentzat ixillik egotea, obe. Dena abazia. Orrek esan nai du ixiltzeak elburu bat aukala: obeto irabaztea.

Oxporroaren begietan, galdera bat agiri: "Zer nai e du orrek?". Besteen aurrean beti erne ibilli be- , zoro kontu gutxi. Bizitza irabaztea da; ortik au- era dena galera.

Beste orrek zer nai duen jakiteko, neurketak oso ndo egiñak asmatu bearrak daude. Garai berdiñe- n etekiña al dan onena atera, urratsak utsean man gabe.

Beste aldetik, oxporroarentzat, galerik aundiena z gutxitan esana dago: "Arek iri den denak arra- atzen dizkik". Orixe bai dela okerkeririk aundiena. undik nora dijoan bestiak dakitela, ondo neurtua elditzen da, besteen begipean morrontzaren gisan. okabidearen nagusitza galdu du. Agirian norbera- n barrena azaltze orrek, era bat galtzen du. Ortik ora errex menperatua izatea, bestien begipean gel-

Gabalana etxeko ona

66 /^\

I —ABALANA" itzari, muga ondoko errietan V^>J kontrabandoa deitzen diote. Berexitasun bat dauka oso ondo datorkiona euskaldunari.

Arratsean gizonak etxetik ateratzen dira. Orduak mendizokoetan egiten dituzte. Bilduma astunak artu bizkar gañean eta bakarrik, ixiltasun osoan, eramaten dituzte oñez beste urrutiko tokietara. Atsegin zait esanez lan ori gure gizartean ez dagola gaizki ikusia.

Gabalana aspalditik giro berexi batean inguratua

ma bizkar gañetik eta ankak zai galdu bidetik ateratzeko. Jausi ta eldu, malkorretik otegira, sasi arantzazkoetatik ur lodietara. Iges aizea baño bizkorrago, arpegia itzalean, lur bustian aztarnik utzi gabe.

Gabalanaren giroan euskal nortasuna loratzen da. Arkaitz tartetik eta basoen zirrituetatik ingurua ondo zaindu bearra, bai urrutiko itzalak, bereziki bertako arpeak. Begiak ezin artu lo, eta belarriak erne, ots bakotxaren arazoa asmatu bear, zalantzarik gabe.

Eguna ta gabari aurrea artu nai. Besteen begiek riki aurretik, lana osatua, iñori konturik eman gabe, batez ere erriko agintariei. Oartzen ez direla eginkizuna osorik betea, gaiñera argitasunik iñori ematera beartuak ez daudela.

Ingurukoen lanak denak ondo ikusi, esanak jakin eta berea gorde. Zer geiago nai du euskaldunak? Bizitzaren jokabideetan orixe nai du arkitu: babesa. Oñazpi ori bear bezala ezagutu bear: arri traketsak b l d i ian r gldi ibi t eb tl

Eman ateratzeko

ATAL onetako izenburu onek den dena esaten du: zerbait eman artzekotan. Buruan barren barrenean daukaten asmoa, orixe da.

Bein, beste askotan bezala, ama bat arrautza eske ollategira joan zen, kabiak utsik ikusten zitulako. Alaba txikiena ondoan, etxean zeukan. Norbait asi zen ate joka. "Bil itzan arraultz eder batzuk" zion amak, atea irikitzera zijoala, alabatxo txikiari. Aurra txikia izaki kabi berriak billatzeko ta andik gutxira, bi llti tl i "E ditt

Askok nai dutena auxe da: gutxi eman eta geiao bildu. Berez utsean ematea ez dute maite. Esku abala eukitzea askok ez dakite zer den. Ez zaie orin atsegin.

Konturatu gabe, bizitzako gai askotan orrelaxe katzen dire; denetik zerbait atera bear. Ar dezagun redu bat.

Euskalerriko bazter askotatik Arantzazu'ra erroes joan bear izaten zuten. Jakiña, Arantzazu'ra, anez gain otoitz egitera joaten ziren. Bear orrek aso esan nai du: etxearen alde Zeruko Amaren onesena eskuratzera, meza mordoa eskeintzera ta abeeen osasuna eskatzera, baita ere uzta onenak eta gokienak lanaren truke lortzera, illak ere gogoan a otoitzean eukitzera. Oiek denak dire etxeko oñariak.

Orrelako ibillialdian, eguerdian, lagunartean biluta bazkari on bat zer den jakin bear dugu: sarrea batzuk, txorixu erreta, ollo salda, babarrun zuak, txipiroiak, ollaskoa piper gorriekin, ardi

Odolkiak ordañetan

GURE izenburu onek asko esan nai du euskaldunentzat. Gure kulturaren atal aundi bat gogoratzen digu. Oiturak ala zion: neguan etxe denetan txerria iltzen zuten. Txerri-puxkak denak onak izaki jateko, ta atsegiñak ortz zorrotzentzat. Aukera ezin obea ere senide maiteen ta auzoko laguntzalle onenetakoei txerri puxka batzuek opatzeko. Denak jakin nai izaten zuten nolako odolkiak egiten zituzten auzoko etxeetan. Puxken artean, odolkiak billatuenak.

P k k t i t t l i t k i j

an. Ala zion: "Ura egun ederra, txerri-puxkak eramatea errekara bota genuenean! Ondo lotua arkitzen nuen nere burua oitura zar arekin. Olakorik gabe egitazko askatasuna nabaritzen dut nere barruan".

Guretzat oitura aipagarria, ta besteentzat negargarria.

Odolkiak berez, beste puxkekin batean, opari berexia izan nai dute. Bañan, esaerak dionez, sortu bear du mailla berdiñeko erantzuna. Orixe esan nai du "ordaña" itzak.

Ba du baita ere beste elburu nagusi bat: erxeak ezin du galdu. Eskubiarekin artzen dena, jakin bear da ezkerrarekin ematen.

Iñungo etxerik ezin da zorretan utzi. Ori baztertu nai du ordañetan egiteak. Esaerak berdintzen ditu sariaren bi alderdiak, eta zokoratzen du besteen larraiñean sugurra sartzeko eskubidea. Bakotxa bere etxean jaun eta jabe gelditzen da.

Orrekin besteen landak begirapean ezin euki. Bakotxari beea ta etxeak ez du beinere galtzen be

Zergatik ixilik?

AITA batek semeari lendabiziko gauza erakusten diona auxe da: zerbait ona etxerako billatu dularik, ixñik ibiltzen alegindu. Berez naiko ongi egiten du ori.

Ixilik ibiltze ori urruti dijoa. Iturri onaren urak ez dituzte ain errex agertuko. Egunero naiz iturrira ur billa joan, ez dute esango nolako ura den ori. Beldur daude beste norbait joango ote den ur orren billa. Axolagabea ba da, bazterrak ondo ondatuak utzi ditzazke; baita ere abereak ur edatera eramaten asi

tan, edozein galdera egiten dula, kolokan ondo jarria dagon erantzuna jasoko luke: "Beko pagadian bildu ditugu ale batzuk". Berrizaleak uxatzeko, naiko jira-bira ordurako egin dituzte. Irabazia ala obe.

Baserritar bat benetan argia genuen. Etxera jauntxo aundiak etortzen zitzaizkion. Xixa oriekin egindako opillak eskeintzen zizkien. Orrelako xixa ederrak ez zutela beinere jan aitortzen zuten denak. Iñork ez zuen asmatzen nundik zekarzkin xixa eder aiek. Inguruko baserritarrak lo zeudela, gabaz berandu, ondo illunduta joaten zen mendira, pardel bat bizkarrean artuta. Bear zen basora iritsita, argia edo farola pardeletik ateratzen zuen eta orrekin xixa eder aien billa asten zen. Noizbait apaizak galdetu zion: "Nola biltzen dituzu xrxa oiek?". "Gabaz farolarekin" eman zion erantzuna. "Zergatik gabaz?" jarraitu zuen apaizak. "Bidea bestiei ez erakusteagatik" azken itza.

Gure baserritarrak ez zuen lan errexa artzen xLxa eder aiek billatzeko; ezagutzen zituen bideak iñori ez agertzeko eta emandako urratsak illunpean uzteko.

Besteak neurtu bear

ZOAZ Euskalerrira ta ortxen ikusiko duzu gaitzik zabalduena: elkar neurtu bearra. Orrek esan nai du, itzak eta asmoak ondo ezkutatzen direla.

Zer esan dezake Jose Mari'k, errira itzultzen delarik, berrogeitamabost urte geroztik? Ameriketan urte asko egin zituen, baita ondo aztu aurtzaroko gora-berak. Besteak, berriz, ez. Atzo izan ba 'litz bezelaxe, zer esan zion amonari gogoratu zioten berealaxe.

It gitk k t it Ol bt

tearen aurrean. Obeto ziria sartzen dunak, erriak txalotuko du. Gaiak sortu, mingañak zer dion jakin, ateraldiak neurtu, nolako gizona bizi den or tartean asmatu: orrekin asko lortu dute.

Ba dago ere lan txarra egiña; ziria sartuz, batzuk bestiak nola nastu alegintzen dire. Ainbeste estutuz, bazterrak ondo lertuak uzten dituzte. Noraño joan ditezken jakin naiko lukete. Noiz erortzen den bat eta noraño irauten duen besteak zutik, erori gabe, asko esan nai du orrek.

Gogotik nastutzeko, ondo korapillatu nai. Ori lortu ezkero, irabazlea txapeldun.

Ziria sartzen eta nasten ez dire bersolariak bakarrik alegintzen. Goiko malletan ere gertatzen dire gauza berdintsuak. Orain dela bizpairu illabete, Iruña'ko ikastetxe nagusian eztabaida irikia ospatu zuten. H'zaleak ta aurkakoak tartean. Ondo neurtu nai zuen batek, korapillo eder bota zion besteari: "Ori esaten duna, ikusten da, ez dela ofiziokoa". Beste orrek ustegabeko ordagoa bota zion. Zirikatu ta nastu, korapillatzeko, maiz erabiltzen dire, uste

Nola jo diozun arpa

NORTASUN aundiko gizasemeen trebetasuna gure inguruan maiz ikusten dugu. Esaldi onetan, ikusten dugunez, agertzen zaigu ausardi garbia. Aspaldi bai, ikasi genuen orrelako zerbait.

Itz oiek asko esan nai dute: batzuek besteak neurtu bear. Dena dela, asko dakite, uste baño geiago. Berri galantak eskuratzen dituzte, berriemalleak zer egiten ari diren bear bezala oartu gabe.

Ortarako lagun urkoa noraño iristen den ezagutu bear, ta ba dakite berriak konturatu gabe aipa-

parra gutxi egiten oitua dago. Geroago bakarrik, noizbait, gauza aundi bat bezala agertuko du gertatutako jokabide ori.

Zakur eta maltzur jokatzea atsegin zaie askori. rabazteko bide berexi bat bezela erabiltzen dute. Doai aundia izaki. Orrekin indar aundiaren jabetasuna eskuratzen dute. Ume zitalen artean jabetasun bat bezala onartua dago.

Lagun urkoa menperatzea, berez, jokabide itxurazkoa da.

"Arpa jotzen" dabillena, esaten dan bezala, zigor ederra bere garaian jasotzen du. Gogorkeri aundi bat sortzen zaio barrenean. Askotan, bakar bakarrik gelditzen da. Beti orrela, ixeka egiten, ezin da bizi. Gizon maltzurrak naiko korapillo arkitzen ditu bere egun luzeetan...

"Arpa jotzen" ibiltzea, oso bera erortzea deritzaigu. Geiegitan gertatzen da, bai, bañan kaltegarria egillearentzat. Erritar jatorrak ez du maite ori. Zerbait itsusia bezala artzen du, gizona ustutzen bai du b itik

Etxeko neurriak agintzen dute

BESTEAK neurtzen dabillena, bere neurriari begiratzen dio; neurri oiek etxean, bata bestearen ondotik, sortuak daude ta arremanetan egitan agintzen dute.

Neurketak bide bat jarraitzen dute, norberak dituan arazoetatik sortua, batez ere besteen kabi ta alorretan ereiteko, baita ere bear dena txertatzeko. Gizaseme bakotxak, bere odolaren berotasuna nabaritzen duen bezala, alaxe ere maite ditu asmatu ditun arazoak eta jokabideak. Berez neurketak bes-

Kaxkariñak, mingain axalekoak eta itz jario dutenak, etorkizunik gabe daude Euskalerrian.

Ondo ikusia dago gizon neurtua, itx gutxikoa, ausnartzen dakina, baita astia artzen, danez gain bear bezala entzuten, bere tokian egoten, iñori itzalik egin gabe ta bereziki lasai dabillena.

Estu bizi denari beldur diote. Zuurtasunaren aztarnik ez dute ikusten, beste denak koloka uzten ditulako.

Xeetasun geientsu abek betetzen dituztelako, "Gipuzkoa'ko langilleak" azkarrak direla, diote. Beste askok azkeneko esaldi borobil ori txikitzen dute, esanez, "bakarrik beren etxe neurriko gauzentzat egiñak daude". Gauza aundietan sartzen ez dire ausartzen. Neronek, ori entzuterakoan, xeetasunak eskatzen nituen. Getari'ko kai zabalaren eredua jarri zidaten. Gauza aundietan ez zen gipuzkoarrik iñor ausartzen. Erriko neurrietan zerbait ondo ikusten zuten. Bilbo'ko semei, berriz, itsas erdian kai nagusia ezartzea ondo zeritzaien.

Neurtzeko maia toki berexia

MAIA elkar neurtzeko toki berexia da. Maiz biltzen dire euskaldunak mai baten inguruan. Errixka batean urte mordoxka egin nuen bizitzen, ta astean bein ikusi izan ditut gizonak biltzen, meza ondotik. Ez zen zerbait edateko aitzakia. Edaria artzeak, edantokian sartzeko eskubidea ematen zien. Lendabizi musean ibiltzen ziren, "ordago" ta "bi enbido" esanez. Kafetxoa esku ondoan zeukaten. Edantokiko sarrera orrexekin ordaintzen zuten. Lasai egoteko ta ziria sartzen asteko musean astialdi bat egin bear. Txolarteko oitura zarra zuten. Naiko

Maia egitan maite dute. Mai baten inguruan exeri ezkero, lasai ipuiak esanez asi bear. Astintzen dituzten ziri guztiei, muturra billatzen aleginduko dire. Etxean sartzen direla, neurketak egiten jarraitzen dute. Ez dire ostatuko gauzak bakarrik. Galbaian gari aleak bezala, berriak banaka aztertzen dituzte, baita ondo astinduko nork zer esan duen. Aztertutakoak ez dituzte bereala aztuko. Zer nolako berria den, alako garrantzia emango diote. Berri emalleari uste baño geroago agertuko diote neurketaren ondorioak, gutxinaz emaitza ori itxaro dutela esanez.

Naita, ondo jakiñez zer esaten dugun, garbi idatzi dugu erri gizon batzuek astean bein, gutxi gora bera, elkarrekin biltzen direla ta egun orretan neurketa sakonak egiten dituztela. Beste errialdetan beste era batera moldatzen dituzte gauzak.

Beste errialdekoak, gizonezkoak, oitura dute egunero edantokira joateko, lana bukatu ondotik. Geienetan lasaitzera dijoaz, lagunen artean biltzera, baita eztarria bustitzera Giro orretan neurketak

Lanean neurtu bear

LAGUNARTEA da gauzik ederrena euskaldunarentzat. Lagunekin errex ibiltzen daki. Giro orretik sortzen dire lanerako arremanak eta elkarteko eginkizunak. Orain, jakiña, bata bestearen ondoan lanean ari direla, berealaxe elkar neurtzen asten dire. Orregatik dijoaz lankideak pixkanaka bakantzen. Neurketak ez zaizkio iñori atsegin. Beraz, norberaren barrenean sartzeko aukera ematen dute neurketa oiek...

Gure baserrietan auzoko etxeen lanetan neurke

a. Begiak, dena neurtzen, auzoko langilleen gaiñen jarriak dauzkate.

Lagunarteko lanetan gauza zaillak egin bear izaen dituzte. Ibar zabaletan erriaren lurrak sendien rtean banatuak dituzte; batzuek belardietarako, estiak garoa izateko, beste batzuek basoak azitzeo, baita ere beste gai ezberdiñetarako. Noizbeinka rriaren izenean mugak neurtzen ibilli bearra dute. rduntxe sortzen zaizkie buruausteak; erriaren lurak zaindu bear. Neurtzeko neurriarekin eskutan rtuta joan bear izaten dute mugak ikustera. Azkean bata bestea neurtzen dabiltz sututa. Noizbait tortzen zaie lasaitzeko garaia. Eguneroko lana aue da: "elkar ondo eramaten" ikasi bear.

Naiko gazterik asten dire elkar neurtzen. Bein rriko jaiak urbiltzen zijoazten. Ekintza batzuek rriaren alde eskatu zizkien. Elburu orrekin, maiz iltzen ziren ogei urte inguruko neska mutillak. Iku-i bear nolako izkuntza erabiltzen zuten beren arten. Giroa ez zen nolanaikoa. Elkarrizketan inguru-

Or - dago"

ITZ orrek asko esan nai du. Neurri galanta bezala artua dago. Nor "Nor baño geiago" ote den jakiteko, esaera orrek giltza baten lana egiten du. "Ordago" esaten dunak orixe agertu nai digu: "Ni, i baño geiago natzaik".

Euskaldunarentzat, jolas denak egintza edo jokabide berexiak dire, batez ere elkar neurtzeko egiñak. Berez, neurketak elburu batzuek burutzeko osatuak daude. Bakotxak bere giltza izaki, bear bezala bizitzaren maillak lortzeko.

Bi alderdietatik ikusi ditzazkegu erri jolasak; al

kal jolas denetan dago sartua. Bigarren maillan euki bear begiak ori ikusteko. Gai orretan begiak erne erabilli, demaren giro berexi ori zer dan eta nola darabillen jakiteko. "Dema" itz orren barrenean sartuak daude apostuak: nor den azkarrena asmatu bearra. Berez egitea oso zailla da. Nai ta nai ez ekintzen eragilleak neurri batzuekin lana egiten dute: bañan ez aztu: giza-seme geientsuenak beste neurri batzuek dituzte, bereak, urtetik urtera egiten joan direnak. Nor den azkarrena ondo asmatu bear. Ez da naikoa azkarrena ikustea. Neurketa berexi oietan sartzeko bear da asko ikusia izatea. Orregatik ikusten dute ain urruti. Demak ditun bere neurriak agintzen dute jokoan. Den denak ontzat emanak daude jokuan sartzeko.

Jolasak ondo zirikatzen ditun tresna edo bidea, dema delakoa da. Ez da naikoa berri askoren gañean ibiltzea: sugurra puxka bat ere bear ta gañera, ausarta balin ba da, obe. Ortxen ematen dituzte beste neurketa batzuek. Gizaseme asko dire demaren inguru ori maite dutenak; asko eta asko.

"Mus" delako jolasak ba du oraindik beste zerbait garrantzi aundikoa. Itz bat nagusi, "or-dago" delakoa. Zer esan nai du? Itzulpena auxe izango litzake: "Neurketak egiten txapeldun naiz: zu baño geiago, orain". Ori esatearekin, zabaltzen ditu mai gañean izkutuan zeuzkan txarteltxoak. Orduntxe agertzen ditu, denak batean, txarteltxo irabazleak: asmatzeko kemena, ausardia, argitasuna, ta nortasun osoa.

"Or-dago" itzarekin, besteak ondo neurtu ondotik, "Ni naiz norbait" esaten du.

Neurtu menperatzeko

ASKOTAN, neurtzea ta menperatzea mailla berdiñean dijoa; parean jarri ditezke. Gure artean ori maiz ikusten dugula ziur nago. Alderdi aula nun dagoen jakiteko, ziri ta ziri ibilli bear neurtzen. Orrekin, borroka beti irabazia. Neurri ori ematen dakina, irabazle. Bere burua ezagutu eraztea eman duna, galtzalle aterako da. Orren ondotik gauzak errex dijoaz. Bateri "Txepetx" izena emango diote, besteari "Xoxua", beste bateri "Otsoa" ta izengoitien bidea artua dago. Iritzi estu ta neurketetan sartu ezk l i b l i l k l

xaren nortasuna nai ala zebilkin, toki ezkerdiñetan artzen zela, obeto ezagutzeko. Zorionezko parra ateratzen zitzaion, atsegin galantarekin. Ba zekin oso barrenean sartzen, eta poliki poliki ateratzen en, nai zituan neurketak eginda. Trebetasuna nabaritzen zuen nortasunaren ikerketa lan oietan. Neurketak egin ondoren, konturatu gabe lagun urkoa menperatzen oitua zegoen. Nolakoak diren aldemenekoak jakiteak atseden ederra ematen zion; an ori menperatzeko asmoakin egiña zegoen. Ez da atseden makala.

Ba daude ere gaiztakeriz neurketak egiten ibilzen direnak. Norbait zapaltzeko zai daude. Neurri berdiñakoekin topo egiten dutenean dire kontuak.

Ezin dugu aztu iñozuaren ateraldia; bestei parra egiteko zai ta ori norberari pakean uzteko. Lagun urkoa noraño iristen dan jakin naiko lukete, ta ez dakina galdetzen asten da. Ezjakintza ori aitortzean, denen aurrean parra egingo du gogotik. Jokabide orren elburua bakarra da: aurrea artzerakoan, norberari ixeka egitea galerazten dio Aurrea artzeko

Jai ta irri Bidaso'ko etxean

BIDASO'KO ibai ondoko errietan ba daukate zoriontasunaren giltza; adiskideak elkartu bazkari on baten inguruan, bazter artako berriak ondo zirikatu ta lertzeraño parra egin. Gauzak, "erraten" diren bezala, goxotasunez bilduta azaldu, itzak berexitasunez eskeñiak bilduta lasai aski. Orixe da jai egitea ta bizitzen jakitea. Belarriak zabalik, burua erne ta biotza lasai.

Zoramenik aundiena, bildutako lagunen txolartean datza. Ortarako bazkari on bat bear. Gogoan artzekoa bein baserri bateko adiskideekin egindako

k ateratzen zitzaigun. Antxen aipatu zuten Galtzaaborda'ko Marijoxepa. Zeñen amatxi argia zen, san nien; Euskalerrian txapeldun eultze ta erle jaintzan. Gai orretaz ba zekizkŕn berreun euskal itzar ezezagunak. Berri ori ematen ari nintzala, maieo beste lagun bat asi zen farrez: "Oso gutti daki makume orrek". Andik gutxira jarraitu zuen: Egun batzuek direla, erle batek ozka egin zion, miñakin ezin egonik zegoela". Ura zen parra egitea. Egitan antxen agertu zitzaigun amatxiren neurketa orrotza.

Ain zorrotz neurtze orrek, izketan ari zen emaumeari, denen aurrean, mailla berexi batean jarzeko bidea ematen zion. Ontzat artutako gaian txaeldun agertzen zen. Arpegietan argitasuna zegoen, zpañetan parra, kopetan izerdia. Giroa ondo berou zen. Elkartean lagunarteko berotasuna lortu genuen: bazkari guztiz ona, berriak ugari ta neurririk abeko lasaitasuna. Ezin zuten aztu Marijoxepa'ren zin egona, erlearen, gure eztenaren lan txarra. Tareka gizasemeak emakume guztiz jakintsuaren nai-

Etxearen izen ona

ETXEAREN izen onak asko esan nai du Euskalerrian. Egitazko ametsa da, ta eguneroko ekintza; elburu bat aldiro lortu bearra.

Euskal etxea egokitasunaren aldetik ezagutzen dugu. Liburu pilla arkitu dezakegu, euskal etxea gai berexi bat bezala artu dutena. Emen eta an etxe eder oiek ikusita begiak zabaltzen zaizkigu. Bai direla ederrak; batzuek lau uretako tellatuarekin, besteak bikoekin, baita irukoekin. Nunaitik ikusten dituzula etxe sendoak; zabalak, indar aundiko antza

Goiko mendialdetako errietan erori aundiko arbelazko tellatuak dauzkate; orrexek egiten dituzte ain lirañak.

Etxe guzti oiek gure nortasunaren ezaugarri dire, gure gizonaren gogo ta barrenaren izkuntza berdintzegabearen agiriak. Barren egoki orren iturri ta oñarri bezala itz bat agertzen da, euskalduna garsuki eragiten eta bultzatzen duna: "egin" aditza. Itz orrek argitasun naikoa ematen digu.

Etxearen izen ona berak osatzen du. Orixe da euskalduna, bere bizitza osoan: "egin". Ortik dator esaldi ezaguna: "Zer egin bear dut?".

Lengo egunean, abertzale bat aberriaren aldeko borrokari buruz mintzo zen. Eta galdetu nion: "Nola erantzuten zuen zure deiari Juan Bautistak?". Erantzun bat eman zidan: "Beti galdera berdiñarekin zetorren, "zer egin bear dut?" esanez. Orren ondotik, den dena "egin". Erantzun borobilla.

Nortasunaren ezaugarri bezala, "egin" aditz ori maiz agertzen da. Geiegitxo ere sartzen dute batzuek Adibidez: "joan egin naiz"; "erosi egin dut";

Bestien bearra izaki

ETXE ederra izatea ez da naikoa; orrek ondo zaintzea eskatzen du eta, jakiña, naiko lanak ematen ditu. Noizbait zerbaiterako bestien bearra izaki.

Ustekabean ezbearrak sortzen dire errian, auzoan, mendietan edo basoan. Ekaitzak, erasoak, tximistak, ugoldeak, lur-ikarak, izurriak, kalte aundiak ekartzen dituzte etxe askotara. Kalteak zuzentzen ibiltzea ez da gizon baten lana, talde eder batena baizik. Luiziak direla, ebi jasak datoztela, bideak

Giroak alaxe eskatzen dula eta, lurra laiakin iraultzeko esku asko lanean jarri bearra egokitu leike. Etxekoak naikoak ez izaki.

Gertakizun guzti oiek eta geiago direla eta, sortu zen ondo errotua "auzolana"; baita "ordañetan" gauzak eskatzea. Gauza askotarako besteen bearra izaki ta ortarako lagunartera biltzen ikasi bear.

Lagunartera biltzen dakinak etxearen izen ona egitaz zabaltzen du. Bestiekin biltzea izaten da jokabide jatorra, nolako giroa dagoen jakiteko. Lendabizi ikusi zer gertatzen den, eta gero ezagutu batzuen eta bestien asmoak. Ondo ikasi nor den nor. Batez ere billeretako ariari jarrai. Aldamenean exeritzen zaizuna ondo ezagutzeak zure onerako izango da egunen batean; zenbaterañoko itza duen eta esana betetzen nola alegintzen den, batez ere.

Nornaik lagundu bear dula ba daki, bañan buruan gauza bat dauka argi asko: nolako etekiña aterako duen etxerako.

Bestien eskuetan dauden indarrak nolabait bere-

Lagunarteak beti loratzen

Alperrik da esatea: "Euskalduna bere barrenaren bakardadean bizi zaigu". Ba daki ere bestiekin bizitzen. Ortaz mintzo direnak ba ditugu naiko eredu, Euskalerri zabalean, bizitzaren mailla guztietan. Naiko azkar ikusi leike zer gertatzen den abesbatzen aldetik daukagun aberastasunarekin. Ba daude abots ederrak, baita elkar biltzeko gogoa. Euskalduna abesten asten delarik, bakarrik ezin asi; bizpairu bear. Bestiekin batera elkar biltze ori, egitazko bearra da, baztertu ezin ditekena.

Gure gizasemeak jaialdiak maite dituzte, eta ez

Gai onetaz mintzo giñan bein batean Aita Agustin Apaolaza beneditarrarekin: "Nola leike, elduak gazteekin bat egitea auteskundeetan?". Lekaidearen erantzuna auxe izan zen: "Elkartzen dire, elkar ez ondatzeko". "An, denek denekin batean egon bear", arraitu zuen. Itz oiekin indar aundiko giltza bat eman zigun.

"An denekin batean egon bear" esaldi orrek asko esan nai du. Gizaseme elduak gazteekin biltzen direla, bere gisa jokatzen, bakarrik ez dituzte uzten. Elduak an direla, nunbaitetik eusten alegintzen dire.

Gazteak bakarrik utziko ba'lituzte, bere onetik errex aterako lirake. Elduak ondoan euki ezkero, galga naiko ederra bertan. Gañera, begi luzeak gañean dituzte. Giro orretan gauzak ez dire berdiñak. Bestiekin batean elkar neurtzen dijoaz egunero; eta, akiña, baita ezitzen, itzal sendoa botatzen. Bakarrik uztea oker aundia izango litzake.

Elduak gazteekin biltzereakin jakintza berexi berexia azaltzen dute. Bizitzeko bide ona erakusten

Billeretan egoten jakin

Egitazko gizatasuna euskaldunentzat ortan datza: billeretan bear bezala ekin. Naiz gazte edo eldua izan, billeretan trebetasuna azaltzen ba daki: "Auxe dek gizona" esango diote.

Billeretako gizona nola agertzen da? Itz gutxi, bañan ondo oñarrituak eta beti neurtuak.

Lagunekin biltzen dela euskalduna, asmo batekin datorkigu: zer esaten dan entzuten ondo alegintzen da. Bestiak izketan ari direla, ez ditu belarriak itxiko; adi adi egongo da, ezer gutxi galtzen dula.

Zapota-ziriaren antzera egingo du: utzi lasai

errexa. Ementxen sartzen dute geienak anka. ndarkeriz ezer gutxi lortzen da; gutxiago oraindik aserratuta. Gauzak poliki poliki egin ezkero, obe. Erdimaillako gizasemeak, oartu gabe arremanetako bideak zuzendu bearrean daude; esku onakin landu bear nai ta nai ez. Esku on ori nagusi gelditzen da. Ondo erabiltze orretan arrakasta datorkie zuzenean.

Billeretarako arrakasta onetan datza: bearrak garbi azaldu. Egitazko gizonak bearrak neurtzen dakitenean, orduan ontzat artuak izaten dire. Bearrak erakusten dio gizonari zer egin. Bearrak ikusten aiotzen da gizonaren izena. Bearra etxe guztietan agertzen ba da, burua dun gizonak billeretara ager- u bearra dauka. Billeretan etxe bakotxak bere tokia du. Eskubide ori ezin dio iñork kendu.

Naiz gaiak zaillak izan, ez du ezerengatik beldurrik euki bear. Beldurra gauzik txarrena da, iñolaz ere jarraitu eziña. Arrazoiak agintzen dute. Berez azaltzen diren bearrak ondo ikustea obe. Begiak asko egiten du; gogoak ere bai.

Gizon ziñezkoari itz neurtuak berez ematen dio-

Jasan bearra

BILLERETARA joan aurretikj akin bearra: ostikoak artzen ikasi ta lasai artu ta ez mindu ezerengatik.

Euskaldunen artean billerak gauza zaillak izaten dire. Ez da gaurko gertakizuna, betikoa balzik. Zarren goraberak entzun ditzagun. Beti giro berdiña agertuko zaigu: eskuetan darabilzkiten gaiak zaiUak, ezin artu erabaki berdiñak, azpilana, gorroto illunak eta zatiketak.

Billeretan ikusiko ditu gizaseme zintzoak anka-

Lagunartera biltzen dela, eragozpenen artean berrak erakutsiko dio zer egin. Batzuetan ollo kolkaen berriak aipatuko ditu; besteetan ollarrarenak. Dena dela, garrantsitsuena auxe da: ez izutu ostikokin, ez beldurtu. Zer egin orduan? Gauzak lasai aru. Lasaitasun orrek nasten ditu bazterrak; baita gionaren sendotasuna agertzen digu. Ostikoak lasai rtzen ikusten dituztenean, besteak arrituta geldizen dire. Bide orretik josten du euskaldun ziñezkok barrengo etxura.

Ostikoak miña ematen dute. Nola jaso ostikoak serratu gabe, orixe da zallena. Euskaldun gizasemergiak zer egiten du? Ostikoak artzerakoan, ezer ez alitz bezala berriz billeretara azaldu. Orrekin nasen ditu bazterrak, baita irabazten, eta batez ere zen ona sendotzen.

Ekaitza, gorrotoa ta eztabaidak direla, lasai gertzen da euskaldun jatorra. Lasaitasun orrek iriitzen ditu zorionezko etorkizunaren ateak. Lasaitaunak ematen die asmo egokiei aukera berria. As-

Baztertzen iaioak

NORBAIT ixildu nai dutenean, Euskalerrian iaioak dire. Bestien ona ezin ikusi, itzala egiteko beldurrez; gizon egokiaren izena ixildu; itzalean gorde; al den azkarrena baztertu... Ori eguneroko jokabidea da.

Erri koxkorretan maiz gertatua: bear aundi bat izaki, baita erriak bertan erantzuna eman dezaken gizona euki, bañan naiago dute urrutira joan laguntzaren billa. Bertakoa bazterrean utzi ta arrotza goratu

tza berexiak dituzte. Lanerako taldeak sortzen alegintzen dire. Iru aldiz, ekintzaren garaian, lankide bat deitu gabe uzten dute, danetan egokiena. Bein eta berriz bildu eta beti aztu lankide ezagun ori deitzea. Norbaiteri itzala egiten ziolako, poliki poliki baztertu bearra izaki. Baztertze ori egiten naiko iaioa euskalduna.

Orain arte esandakoa ez da zallena sinisten. Ba dago zerbait gogorragoa. Auxe da gertatzen dena billera askotan. Bearrak dituzte aztertzeko, argitasuna lortu nai ta buru bizkorren baten billa asten dire lanean. Denak dakite gai artaz nor den trebeena. Buru danetan dabil, aurren aurrena, bear luketen gizona, denak ondo ezagutzen dutena. Denak ba dakite ura bezelakorik ez dagola. Ala guztiz ere, asko ta askotan, izen ori ixilduko dute. Berez, aurrez beren artean itzik egin gabe, ixilik geldituko dire. Izen ori ez zaie aotik aterako. Bide biurriak naiko estuak artuko ditu bakotxak bere aldetik, bañan izen ori ixiltasun osoan geldituko da. Ori dena gertatzen da, b d k i t l k t dik gi dl t

Erdibidearen billa

EUSKALDUNEN artean billera berexi berexiak egiten dituzte. Gaiak agintzen du.Ba dire ere illuntasun aundiko uneak. Eztabaida galantak daramazte berekin batean buruauste mingarríak. Otsak nasten dire, indarkeria sortzen.

Berez taldeak egiten dituzte; alde batetik, batzuek; bestetik, gelditzen direnak. Axola gutxi nun dagoen egia. Garrantzitsuena, ikurrin baten atzetik ibiltzea.

Atzaparrak zabalak, buru barrena utsa. Odola, beriz, irakiten; bero ta ezin egona.

Maiz txinparta guzti oietatik izaten dire gure bileretan; onena, ortik ateratzen jakitea.

Naiz gaiak zaillak izaki ta gizasemeak nasiak, uskaldunen artean itz bat sortzen da ondo asmaua: "erdibide" izena. Itz ori naikoa astindua arkizen dugu. Zorionez zerbait esan . nai du. Edozein bultzagillearen alde ez utzi indar guztiak joaten. Denen iritziak entzun eta denen onerako begiratuz gauzak egin. Beste aldetik, goraberak direnak direa, denak onartzea zailla. Itza bezala,"erdibidea" mankorra da. Ondo ikusia dago euskaldunen artean. Ondo ikusia izateko ikurrin polita. Eskuona duenentzat egokia; goruntz olioa bezala ateratzeko. Bañan maiz etorkizuna ez dago erdibidearen aldeik. Ikus zer gertatu zitzaion Manuel Lekuona'ri Euskalzaindian.

Maiz aipatzen zuen erdibidea. Itz orrekin bere nortasuna jazten zuen. Euskalzaindian buru ta zu-

d i i d t t E k b t d l

Itzari eutsi

GAUZAK estutzen dijoaztenean, euskalduna mai baten inguruan biltzen da, ta or daudenak maikide biurtzen dire. Zerbait aldatzen zaie burutik eta arpegitik. Emendik aurrera batzar-kideak izango dire.

Gizon izateko garaia etorri zaie. Or artutako erabakiak luzaro aginduko dute. Eredu izango dire gauza askotarako. Batzarrean kide bakoitxa etxe baten ordezkaria izango dire. Ez gera arritzen ord Zbi glikb t t i gki

Batzarrak euskaldunaren itza ez du baztertzen, sendoago egiten baizik. Aspalditik sua zeukan etxeak, (etsiak), ordezkaria bidaltzen zuen batzarrera. tzarekin araua egiten zuten. Batzarrean ontzat artutako itza ondo gordeta gelditzen zen.

Itz orrekin bizitzarako lotuak gelditzen ziren. Laño a zela edo kazkabarra, ekaitza illuna edo barealdia, "emandako itzari ondo eutsi" esango lioke euskaldunak, gogotik eta indar aundiarekin. "Eutsi" itz ori bere nortasunaren ezaugarri egingo du.

Emandako itzari.bear bezala eusteko, ez zuen paperen edo idazkien bearrik. Paperak eta idazkiek besteentzat ziren: erregeentzat eta oien ordezkarientzat. Abek idatzita bear zituzten euki beren erabakiak; euskaldunek, berriz, ez. Itzari ondo eustea gogo onean zegoen,zorionez,eta zoritxarrez euskararentzat, lekuko idazkirik gabe gelditzen zelako. Euskaldunentzako itza nagusi. Orreri danez gain eutsi bear.

Itz berexiak alderdi guzietatik marrazten dute gizonen nortasuna bein betiko Eredu batek naikoa

Bata bestearen ondoan berdin

EUSKALDUNENTZAT gauza bat da garbia: etxean sua pixten dutelarik, bata bestearen ondoan berdiñak direla. Bilduta daudela, buru bezala ez dute iñor ikusi nai. Bakotxak itz baten indarra jasotzen du auteskunde guztietan, eta orrek dauka garrantzi galanta. Bide orretik biltzen direnei, billeretara urbiltzen direla, bideak zabalik irikitzen dizkiete.

Euskaldunen artean ,gauzik garrantzitsuena ez da zuzendaría nor den jakitea, erabakiak danen artean banaka artzea baizik. Bestelakoak izango ba'li-

eren oitura zeukan. Euskaldunak ondo ezagutzen ituen. Izena egiña zeukan; baita ere ematen zuen zala. Maiz agertzen zuten izparringietan eta irraan. Bein irratian elkarrizketa luzea artu zioten, geo adiskide batek bidali zidana. Agintaritza nola kusten duen euskaldunak aztertzen du. Ezin dugu azter batean utzi; aberatsegia da. Esan bearra: anik gutxira, bat batean gazterik il zen.

Berak dionez, aurrelaria euskaldunak ez du maite; ezta ere agintari zaleak. Ori ez dago ondo kusia gure artean. Aintzinlari, agintari ta buruzagi. z oiek geiegi aipatzea ez zaio atsegin. Egitan ez due maite.

Norbait goruntz begira dabillela jakiten ba du, ztopo ederrak jartzen aleginduko da euskalduna. xillik edo ots eginda, nastuko ditu bazterrak. Gogor rtzen ditu aundizaleak.

Abereak azokan bezala ikusten zuen Jean Pitreu'k Euskalerria: erri-enparantza gizasemez betea, xapelak ugari, makilla eskuan artuta, itzak apal gi-

Etxea ondatzen

EUSKAL etxe egokiari buruz naikoa mintzatu gera. Dena dela, edertasun ori ikusten ez da iñor aspertzen. Egokitasun ori danez gain agertzen da. Ikus Euskalerriko Iparraldean gertatzen dena. Edozein erritan sartzen gerala, ortxen dauzkagu errenkan edo bakarka etxe dizdiratsu ta sendoak. Zenbat liburu eder euskal etxei buruz idatziak, neurri guztietakoak! Ez dago berdintasunik: esku berexia daukate itxasoko erriak; Lapurdi barreneko etxeak beste esku on bat erakusten digute. Be-Nafarro'koak, berriz, sendotasun eta zabalera aldetik j t d t X i b ' k t k b t b t l k k

Eta denak euskaldunak. Bi eskukoak izaki: bat asotzen duna, bestea ajolakabea. Batetik etekiña a atsedena dator; bestetik miña ta griña illunak.

Gure edestiari begiratuz,zenbat lan on ikusten ditugunak! Baita ere erria erdibitzeko jokabide garratzak eta gertakizun samiñak. Ortxen ditugu indar kaltegarriak, Euskalerria lertu naian. Garai batean Oñaz eta Ganboa: pixko bat geroago, agramonetarrak eta beaumontetarrak. Orrelaxe, etxeak suan. Euskalerria, berriz, ondatua lurrean. Beste zaiketa ikaragarria, liberalak eta karlistak, beltzak eta txuriak, antziñako garaietan egin zen. Karlistak, Lege Zarraren alde zeudenak (oitura zarra obetutzeko eskubidea), beren artean erdibituak zebiltzen; Santa Krutz apaiza Karlisten agintariek il nai zuten.

Gaur, berriz,zer esanik ez: euskaldunak batzuek bestien aurka, gorrotoa ugari eta ezin ikusia.

Jokabide oker oien oñarriak.euskaldunak ondo asko ezagutzen dituzte. Euskal nortasunaren alderdi illunak dire; baita kaltegarriak. Bakoitxentzat euskarak izen berexia du: zitala, arroa, espantula-

Ume zitala

Í Í T T

I I ME zitala" aterki zabal orren azpian naiko %^f jokabide sar ditezke. Eredu garbi batzuk goitik bera asiko gera jartzen.

Ume zitalak berea ta berea bakarrik artzen du gogoan, ta orrekin etxearen izena zikintzen du. Bide orretik gogorkeria bakarrik lortzen da.

Bein bi baserritar parrandara zijoazten; lendabizi bazkaldu elkarrekin, gero frontoia, azkenean dantza gela batera. Emengo atezainak esaten die: "Ez duzue sartzerik" "Lokatza al dago barre

Adarkada onek ondo agertzen du ume zitalak lotsa galtzea zer dan. Mingain askatuak barrenean zer daukan naikoa esaten du.

Ume zitala alaxekoa da: bestien aurrerapena zin du ikusi. Gure artean orrelakoak asko daude.

Egitan esan bearra dago: ume zitalak bestien aurrerapena ezin du eraman.

An eta emen zer gertatzen den ikus. Eredu garbi onek naikoa esaten du.

Bi neska elduak adiskide miñak ziren. Egunero bata bestiari deika zebiltzen. Amai gabeko elkarrizketak. Beti iji ta farra. Edozein aitzaki ona, elkarri deika ibiltzeko. Orduak bata bestearekin talka ta alka.

Jai egunetan, egurastera edo ibillialdi luzetara bata bestearekin anka egiten.

Dena dela, oietako batek, naiz lan ona izaki, obea billatzen du. Beste adiskidea, berriz, lanik gabe dabil. Lan berria dunak, beste adiskideak aspalditik lanik gabe dabillela ba daki Ala guztiz ere lan

Aurrea artu bear

BESTEI nola aurrea artu asmatzen ibilliko da beti ume zitala. Norbait altxatzen asten danerako, bestia zutik, zer eskuratuko dun zai: beti besterenetik jan bear. Saietsetik joko zaitu ta saietsean arkituko duzu ume zitala, beti zearka ezarria.

Ezin aztu ba ditugula errietan, esan dugun bezala, auzolanaren bultzagilleak; baita norberak egin bear lituzketen bideak bestiak egiteko zai daudenak. Norberak egindako bideari ez diote begiramenik. Bestiak lana egiten ikusi nai. "Norbaitek egingo

Eltxoak azken odol tanta edan gabe uzten ez duen bezala, alaxe ume zitalaren jokabidea: on guzia xurpatu bearra.

Ume zitalaren itzala zenbateraño sartua dagoen gure artean ikusteko, beste eredu gogor batek naikoa esaten digu. Bi adiskide dire, biek euskalzaleak. Euskeraren giroa oso txarra zen egun aietan.Bi adiskide oietatik batek ala dio:"Euskara zuzpertzeko irratiaren bidez egin bear dugu lan egokia". Orrek lan osoa egiña dauka aurretik: erabilli bear diren gaiak, zenbat entzule izango dituzten, nolako arremanak euki ta abar.

Bestea aurka jartzen zaio. Bat bestiaren ondotik eragozpenak bakarrik aurreratzen dizkio. Ez du euskeraren etorkizunik ikusten irratian. Bi adiskide oiek goi maillako euskaldunak eta jakitunak dire. Dena dela, bat alde eta bestea aurka.

Andik gutxira, irratizaleak euskal aizeak entzuten asten da. Txundituta dago. Izlaria ezagutzen du: beste adiskide ori izaki, euskeraren aurrerapenik irratian ikusten ez zuena Ori ikusita izoztua

Basa indarkeria

BESTIEI aurrea artzen dabiltzenak, beti beriarekin atera bear. Atsedenik ez, elburu nagusia lortu arte: indarrez menperatu. Ez dut esango euskaldun denak alakoak direnik; bañan alakoak agertu zaizkigu gure artean. Ala da: basa indarkeria gure inguruan. Orren atzetik dabiltz gizaseme asko, bizitzaren mailla guztietan. Berena bakarrik ikusten dute, eta ez besteena. Ta, ori lortzeko, argitaritzaren billa ari dire lanean. Guztien ona ez dute amets. norberak berea osatzea baizik. Orregatik deitzen dugu alderdi txar ori "indarkeri basatia".

Euskaldunen artean arkitzen duguna, ori bera daukagu Elizan ere. Kirats orretan, agintaritza indarkeri uts biurtzen da. Baita indarra gogorkeria. Ta, azkenean, ortik sartzen da ezin eramana ta zuzen zuzenean gorrotoa.

Gisa onetako agintaritza oso gordiña dugu; ondo eldu gabea. Bere orretan irauteko, ostikoak ondo ematen jakin bear. Beraientzat, berak aukeratutakoak era bat adiskideak biurtzen dire. Oiekin bakarrik dakite bizitzen. Ontzat artuak ez direnentzat ez daukate errorik; gutxiago oraindik maitasunik. Dena dela, indarkeria gaiztakeriaren oñarria da. Orregatik. kalte aundia egiten digu.

Okerrak zuzentzea lan zailla da; eta oker aundiak, zaillagoa oraindik. Gure iritzi garbia onetan datza: ukaldiari ez erantzun, okerrik ez egin, joko garbia erabilli beti; bakoitza bere doaiak loratzen alegindu; ez zoko batean gelditu, jalgi argira; euskal atorrak bezala jokatu,, elbarriak lagundu, txikiak berriz eta berriz babestu; ozenki mintzatu, itxaropena goraipatu erriarekin bizi Egiten den ona naiz

Ez neretzat, ezta ere iretzat

ORIXE bai dela gizaseme biurriaren mezua. Eredu bat naikoa zer esan dugun ulertzeko.

Auxe da andereño bateri gertatutakoa. Orain dela gutxi, andereño batek txosketa bat eratu zuen aurrekin bere ikasgelan. Arraia bere urontzian, irabazlearen saria, emateko zeukan. Zoriona ta saria ikasle bateri erortzen zaio. Gaztetxo bat saririk gabe gelditu zelarik, ikusi zuenean aukera arkitu zuela, joan, eskuak urontzian sartu ta arraitxoa ito zuen Itz auek esan zituen: "Ez neretzat ezta ere ire

kin batean eraman zuten, baita ere kaia barrenean utzi. Geroxeago balea berena zela esaten asi ziren. Zarauz'tarrak ez zeuden oso pozik eta Iruña'ko auzitegira eraman zituzten.

Balea berriz, Donosti'ko maskor itsas ertzean ezartzeko erabaki zuten. Erabaki orren oñarria auxe izan zan: "erriari orrelako arrai aundi bat ikusteko aukera eman bear zitzaiola'.

Bale eder ura, Zarautz, Getari ta Orio'ko arrantzaleen lana zen. Ala guztiz ere, iru erri oietako gizasemeak, arrai ori ikusteko aukerarik ez zuten izan. Donostia'rrak berriz, bai; ori, arrantza orren lekuko ez zirala izan.

Iruña'ko auzitegiak azken erabakia artzen zuen bitarte orretan, balea, itsas arrai galanta eta eder ura, usteldu zitzaien. Orrela ez batentzat, ez bestientzat, iñorentzat. Euskaldun aiek ez ziren gai izan beren artean bildu ta zuzentasun onean erabaki bidezkoak artzeko. Lana, bai, denen artean egin zuten; gero, etekiña ateratzeko, uts. Alderantziz, ondo aserretu ziren, eta bitartean arrai eder ura ustld iti Ol bi tkiñ i ñ t t

Indarrak erdibitzen

BATASUNA beti bearrezkoa, ta ametsa. Euskaldunok Euskalerria gurea izatea nai ba dugu, bi gauza egin bearrak daude: bat, euskal talde guziak elkarturik, elkarrekin lana egin. Bigarren, elkartzen gaituzten txostenak erabilli. Aipatzen dugun jokabide au, ixpilluan bezin ondo politikan ikusten dugu. Euskal politikan auxe dago agirian gaur: euskaldun batzuek besteen aurka, borroka ta ezin ikusia gure artean, etsairik aundienak izango ba giña bezala. Batasunaren bearra izaki, ta orren ordez

t b t

oker onen oñarria, len agertutako elburu berberadaukagula: "Ez dek niretzat, ezta ere iretzat".

Obe lertzea, bestien pean bizitzea baño. Indarra euskaldunei batasunak ematen die, bañan batasun ori lortzen zailla benetan. Bereak balio dunean, ez zaio aldamenekoari begiratzen. Jakin bear da bestiekin batean lana egiten; baita gogoa orretarako. Nai ta nai ez, erria ezi bear. Batasunaren alde lana egitea ez da berez sortzen. Eragozpenak ortxen ditugu bide erdian. Begiak ondo iriki obeto ikusteko. Den denak ikusi, gauzak diren bezala jakiteko. Gero okerrak zuzendu, al dan obekiena. Ikusi, eutsi ta zuzendu da bidea. Gauzak berez egiten ez direla, ortarako urratsak eman bear.

Dantza talde batekin gertatzen dena, berdin. Dantzari gaztetxoen taldea ikusten duzula, berealaxe arkituko dituzu anka sartzeak. Berriz eta berriz askotan egin bearko duzu dantza berdiña, ondo gauzak ateratzeko. Dantzaldi bat ondo xamar egiña ateratzen dela, ordu askoren lana da. Akatsak agertzen zaizkigu berez. Ala bear. Orregatik ez beldurtu.

Arroa espantuka

ARRO arro dabillena espantuka bizi da. Arrokerlak gizasemea aizatua uzten du. Aizatuak, berriz, ondo ikusia izatea maite. Bein eta berriz toki askotan olakoak. Berez arroa alperra da.

Nunbait ikusi nuen eredu polita. Ba zegoen baserri galanta erriko enparantza zabal orretan. Bertan gizon gazte mordoa bizi zen, denak ondo janak, egokiak, mutil lasaiak. Astegunetan atadian zebiltzen, gora ta bera solasean, talka talka etengabe. Itxuraz bai indartsuak bañan lana egiteko gai ez

datzen joan bear. Espantuka dabiltzan auek bi mailako ao-literatura utzi diote erriari, ezin dena arbuiatu; bat, ipurdiko aizearekin nasia dago, bigarena, neurririk gabeko indartsuen Txominipurdiren ipuiak orixe azaltzen digute: den denak sartzen dire ipurdi galant orretan. Azaria, otsoa, baia, denentzat tokia; ta ipurditik ateratzen diren pixtiekin ondatzen dituzte bazterrak. Ezer onik atea al diteke? Gauza txarra da sabela aizez betea izaea; txarragoa oraindik burua aizepuztutzea.

Itz aundiak itxuraz, bañan utsak, berez daude ondo aizatuak. "Lengo zarrak zeiñen indartsuak ziren" dio ipui zarrak. Aundikeri galantak, bañan irudimena lastoz betetzeko: zortzi egun arkaitz bat eskuakin eusten; ankak lotuta, erbia lasterka baño azkarragoa; mendiz mendi jauzika ta eskua zabalduz edozein gizaseme batetik bestera eramaten. Bazuek, aundikeriak asmatzen, bakarrik gelditzen dire. ítzak galantak; ekintzak, berriz, aizearen antzekoak.

Zoritxarrez, espantuka dabiltzenak, beste ezer-

Setakeria

SETAKERIA euskaldunen gaitza da, baita ere. Errexa ezagutzen: zernai egiteko agindu ezkero, naiz atsik artzeko astirik ez izan, ezezko erantzuna eman bear.

Ba ditugu gure sendietan beti, ekintza danen aurretik, ezezko itza agertuko dutenak. Zerbait egiteko deitzen ba dituzu, esaldia amaitu aurretik , "ez" esango dute. Goizetik gaba arte, "ez" itza entzun bear. Mailla ortako gizasemearekin "ez" itzaren zai egon bear.

Jakiña, amor emateko, norbait gogor lanean asi bearra. Bestietan setakeria, norbera bere asmoarekin aurrera atera ezin danean, bere barruan eransen zaio ta era bat ixten da. Orregatik daude ainbeste ertsiak, beren barru ortatik ez dakitenak ateatzen, ezta iñorentzat zubirik irikitzen. Barrenean ulo bat egin eta ortxen itxita gelditu nai.

Batzuek ezin dire elkartu. Nortasun itxi orrek ez dielako uzten. Orregatik, bestien ona zer den ez dakite; gutxiago oraindik geientsuen bearrak ontzat artzen. Beti danen aurka ibilli bear. Ori ere setakeri galanta da.

Bein Aita Ondarra kaputxinoari galdetzen nion: Zergatik galdu da euskara erri batzuetan eta beseetan ez?" Adibidez, Aita Ondarra'ren errian, Bakaikoa'n, era bat utzi zuten euskara elkarrizketean. Gazteak ez ziren geiago mintzo euskaraz; erdeaz ondo egiten zuten. Auzoko errian berriz, aldamenean, etxeondoan, Urdiain'en, denak, gazteak ta elduak, euskaraz mintzo dire. Zergatik bi jokabide oiek ain ezberdiñak?

Zakur ugari

EUSKALDUNEN artean bizi ezkero, berealaxe oartu bear gure artean ere zakurkeri asko dagola. Zertaz artu zakurrak eredu bezala?

